TTiPi-TTAPA

1987.ko Apirila

19. zenb.

KORRIKA ADARRA, SUNBILLATIK BORTZIRIETARA

Ttipi-Ttaparen zenbaki honi, inprimategian azkeneko tokeak ematen ari Zizkioten bitartean, bi urtetik behin Euskal Herri osoa zeharkatzen duen mobida monstruosso hori, ziztu bizian dabil, KORRIKA-KORRIKA, herriz-herri.

Honekin, bigarren edizioa da, KORRIKA gure eskualdetik pasatzen ez zaigula. Azkenekoa, Korrika 3 izan bait zen. Hala ere, Baztangoak eta Doneztebe aldekoak ez daitezke kexatu.

Baina oraingoan, horra hor, guk ere geure KORRIKA ADARRA montatu dugula !! KORRIKA nagusia Baztandik eta Doneztebetik pasatzen den egun berean, apirilaren 4ean, Bortziriko AEK-k antolatuta, Sunbilatik hasi eta Bortziri osoak zeharkatuko dituen adar bat abiatuko da, akabila Arantzan izanen duelarik.
Eta lehen edizio hau ongi burutzeko, ekitaldi mordo bat:
Trikitixak, bertsolariak, herri afaria, dantzaldia. Aurretik ikusten den giroagatik, izugarrizko arrakasta izanen duela susmatzen dugu.

EUSKARA, ZEUREA

EUSKARAZ ETA KITTO!!

aek

2. BERRIAK
18. KOMUNALAK GAUR
22. INAUTERIAK
29. KOMIKIA (KONTUZ JANARIEKIN
40. LAN ISTRIPUAK
43. TETANOS
44. DROGARI BURUZ...
48. HERRIKO GAZTEAK NUN
50. AZKENEKO SASKIGILEA
52. BORTZIRI?, BORTZIRIA
54. H_2O
56. IA EZINEZKO A MODIO
58. ANA MAIALEN
60. KEPARI
61. TXISTEAK, OLERKIAK
63. KOMIKIA
64. ORRI BELTZA

BERA

EUSKARA ETA KORRIKA

Martxoaren 12an, gaueko 9etan oso pozik genbiltzan A.E.K.ko hiru kide, gure herriko paretak kolorez eta alaitasunez bete nahian, KORRIKAko kartelak paratzen. Pentsa ze kontent ginen ze pastak jaten eta guzti ari ginela! Bainan gure pozak laster amaitu ziren. Altzateko plazako kioskoan ari ginela, hor agertzen zaizkigu bi "zardin zahar". Dokumentazioa eskatu eta gutariko batek zera erantzun zion: -Ba nik ez daukat hemen. Orduan detenitua eramango zutela esan zioten. Gero kotxera (han bait zeukan N.A.N.) bidali zuten karnetaren bila. Ondorengo galderak hauek izan ziren:

-Zer den KORRIKA, zer A.E.K.?

-Ea apuntatzen ahal ziren euskara ikastera?, nabari zela gure experientzia kartelak jartzerakoan e.a. Gure datu guztiak hartu ondoren honela erranez joan ziren:

-¡La proxima ve que o vea poniendo koza suberziba, va a ir too ar zako!.

Badakizue, kontuz ibili behar, hurrengoan "terrorita" garela errango digute eta...Hau mobida, hau!

TXIRRINDULARIAK

Orain arte, Txirrindulari Elkarte bat genuen beran. Berako txirrindulari elkartea. Baina azkeneko ihauterietan talde berri bat azaldu zaigu, arront "martxosoa" gainera. Bere izena, "Los Ziklokulos" da eta benetan ipurdi ederrak dituztela!

BERRI TRISTE BAT

Martxoan, eta motorrako istripu bategatik, hil zaigu Iosu Bergara, 30 urtetako gaztea. Bere heriotza oso sentitua izan da herrian, Iosu arront ezaguna bait zen. Hemendik, gure agurrik beroena bere senide guztiei.

ZUHAITZAREN EGUNA

Martxoaren 22an "zuhaitzaren eguna" ospatu zen. Goizeko 9etan irten eta "Usatieta" deitzen den tokian 50 haritza ezarri ziren. Ondoren gosaria (bakoitzak berea).

FOSO SEPTIKOA

Ibardingo foso septikoaren garbiketa dela eta, Joxe Mª Alberitx Herrera jaunaren eskeintza ikusiz, herriko etxeak onartu egin du. Eskeintza honen aurrekontua 114.400 pezeta da.

AGERRA

Jabier Teiletxea Iñargak, Agerra Auzoko Bizilagunen Elkartearen izenean, instantzia bat aurkeztu du zera eskatuz: Chantre jaunak 1400 metro kuadratuko partzela eman zuenez, eserleku batzu, pilota toki ttiki bat, itturri bat eta haur jokuentzat pista bat egin dezaten. Azkenean herriko etxeak Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskatzea erabaki zuen.

TELEBISTA

Jendea oso kexu dagoela eta, Leiza anaiak aurrekontu batzu eskeini dizkio herriko etxeari telebistaren errepetidorea ongi jartzeko asmoz. Hau izan zen artutako erabakia: kontutan harturik Nafarroako Gobernua laister Nafarroako errepetidore guztien kargo eginen dela, dagoen materiala probestu reemisore berri bat jartzeko, 200.000 pezetako kostearekin.

OSTATUEN ORDUTEGIA

Nafarroako Gobernuaren Administrazio Sailak idatzi bat bidali dio Udaletxeari zera erranez: ostatuak ordu bat beranduago ixteko posibilitateari ea zer dion.

Eta honeri erantzun zaio oraingo ordutegia nahikoa dela erranaz. Orain jakin behar herriko jendeak zer dion, gauza tristea bait da besta bat bukatu ondoren, ostatu guztiak itxiak egotea eta guk etxera joateko gogorik ez. Kriston problema!

LAND ROVER BERRIA

Herriko lanetako land roverra oso zaharra zela eta, berria erostea erabaki zuen udaletxeak. Lehengo zaharrangatik 350.000 pezeta ordaindu zieten eta berria 2.000.000 pezeta ordaindu dute.

GURE TXOKOA

Batzarre berezi baten bidez, Gure Txokoa elkarteak zuzendaritza berria hautatu du. Batzarre honetara 59 sozio azaldu ziren, nahiz eta bazkideen kopurua 1045 ena izan. Goiaren proposamenez sail berri bat antolatu zen: gazteen lokalarena. Azkenean zuzendaritzako junta honela geldi-tu da:

Presidentea: Isidro Castillo,
Tesorera: Belen Arribillaga,
Kultura: Bittori Teiletxea eta Martzial Teiletxea.
Artea: Kotto eta German Castillo.
Dantzak: Toñin Rodriguez.
Pelota: L.M. Retegi eta Kepa Arretxea.
Txirrindularitza: A. Retegi.
Motorra: J.I. Prieto.
Gazteen lokalak: Josu Goia eta Patxi Moreno.
Almazeneroak: J.Iribarren. J. Arakues, B. Barredo, Mª Carmen Teiletxea.
Futbola eta atletismoa hutsik geratu ziren.

BERTSOLARIAK

Nafarroako Bertsolari Txapelketa martxan dago. Honen akabila Beran ospatu da aurten apirilaren 5ean.

ARANTZA



Heziketarako Ministeritzak prestatu dituen "encuentros deportivos" delakoak direla eta hor dabiltza Arantzako haurtxoak herriz herri jolasten, orain arte sekulako trebezia erakutsi dutelarik. Batez ere, saski baloian izugarrizko emaitza onak izan dituzte eta erran behar dugu baita ere pilotan eta fulbitoan ederki ari direla. Beraz, lasai egon gaitezke Arantzako kirolzale guztiok, aterako bait dira berriro ere, Antton Maizen modura, zer erranik emanen dituzten kirolari haundiak.

UDAL HAUTESKUNDEAK

Udal hauteskundeak gainean ditugula eta, hasia dugu jadanik herriko giroa epeltzen. Hor dabiltza alde batekoak eta bertzekoak bileraz bilera, heuren programak eta zerrendak lantzen. Hala ere oraingoz, gai honi buruz ezer zehatzik ez dakigunez, hurrengo alerako utziko dugu sakon eta zabal jorratzeko.

ZUBIETA ETA ARANTZAREN ARTEKO AUZIA DELA ETA... GORBATXOFen INFORMEA

Orain dela bi ale agindu genizuen bezala, hementxe doa, Zubieta eta Arantzaren arteko auzia dela eta..., Gorbatxofek prestaturiko txostena. Jakin badakigu, argitalpen honek gure segurtasunarekiko ekar dezaken izugarrizko arriskuak, hala ere Ttipi-Ttapako irakurle fidelari errespetu haundia diogunez, ez gara hemen hasiko informazioa gordetzen edo manipulatzen. Beraz, punttu eta komarik aldatu gabe, hor doa txostena oso osorik.

Honela dio:

"Ikerketa lan luze eta astunaren ondotik, jakin dugu "Txernobilgo istripua" Zubietarrak burutu zutela; neurri honetako ekintza egiteko, noski, CIAren diru eta estrategi laguntzaz baliatu zirelarik.

Hala ere lasai egon gaitezke sobietarrak, ez bait gara gu plan korapilotsu honen azken helburu. Istripu hau, medio soil bat bezala erabili bait dute, medio txit salagarria noski, azken helburua Arantzako herria okupatzea delarik.

Ekintza hau bi fasetan burutzeko prestaturik dago:

Lehenengoa, eta jadanik martxan dagoena, Ekaitzako mendi ttonttorra okupatzea delarik. Honetarako, nonbait, ehiztariak bidaltzea ezinbestekoa zen eta, zer asmatuko... eta usotxoak kontaminatzea. Horra hor Txernobilgo istripuaren egiazko zergatia!!!

Gero bigarren fasea etorriko litzateke. Zubietako armada astoz ongi horniturik, han, Ekaitzako mendi ttonttorroan, kokatuko litzateke. Hala ere hau ondo gauzatzeko, herrien eta batez ere Iturengo herriaren onespena beharko dute, heuren urtegia beharrezkoa izango bait zaie astoak uraz asetzeko. Izugarrizko diplomazi borrokak izango dira hor.(Vernon Walterren bisita lekuko).

Behin hor asentaturik, uste gabeko eraso baten bidez eta, Arantzako Udala bilkura batean dagoela aprobetxaturik, herriko plazaraino iritxiko lirakeen. Plazara iritxiz gero, astoak Udalari ipurdia emanez lerrotu eta bi motatako misilak jaurtitzeari ekingo liotekeen. SH 520 motakoak, "asto buzkerra" bezala ezagunagoak, heuren eragina usaian datzalarik eta baita HKZ012 motakoak ere, "asto kaka mokordoa" deituak, ahoan jo ezkero eta hau irekia izanez gero, heriotza bertan eragin dezaketenak, intosikazioz."

Honeraino informeak dioena.

Erran beharrik ez dago, Arantzako Udalak arriskuaren garrantzia ikusirik, neurri zorrotzak hartu direla.

1a.- Egun eta gauez, patruila bat jartzea bi herrien arteko mugan pasatzen diren astoen matrikula kontrolatzeko. Noski, Zubietar matrikula daramatenak galerazia izango dute bidea. Lan hau auzolan modura egingo da.

2.a- Iturengo eta ondoko herriekin diplomazi harremanak hastea, modu honetako basakeria galerazi dezaten.

3.a- Arazoa auzitegietara eramatea.

ETXALAR

KONTSULTARAKO ETXEA EGITEKO SUBENTZIOA GALDU DA.-

Abenduaren 31ean izandako Udalsesioaren arabera, bertan bera gelditu da mediku-kontsultarako egin asmo zen etxearen projektua.

Guzti honen istorioa, joan den urtean hasi zen.

Nafarroako Gobernuak subentzionaturik, Udalak, kontsultarako etxe baten projektua egiteko agindua eman zuen eta, Alkatesaren baliozko botoari esker, (voto de calidad), Gaztelu arkitektoari eman zitzaion projektu hori egiteko ardura. Honek berriz, nolabaiteko projektua prestatu zuen eta Udalak subastara eraman zuen, etxegileren bat animatuko zelakoan.

Hortarako eta projektuak zion bezala eraikintzaren aurrekontua edo presupuestoa, denetara 14.522.581 pezetatan eskainiz. Nafarroako Gobernuak koste horretatik ehunetik hirurogeitamar(%70) ordainduko luke, hau da, 9.840.000 pzta. eta falta dena Etxalarko Udalak.

Jakin dugunez, etxegile baten bila handik eta hemendik ibili ondoren eta denbora luzez projektua Herriko Etxearen sekretarian jendeaurrean eduki arren, ez da bakar bat ere animatu projektu

hori bere gain hartzera. Azkenetako eskaintza Sarobe etxegileak egindakoa omen da, 18.480.000 pzta eskatuz etxea egin truke.

Ikusten duzuenez, etxegileen eskaintzarik hoberena, aurrekontua baino 4.500.000 pzta. gehiagokoa denez, projektua bertan bera gelditu da eta zoritxarrez Nafarroako Gobernuaren ia 10 miliotako (10.000.000) laguntza galduko da.

Herri Taldeko zinegotzien ustez, akatsa projektuan bertan dago, hau da, projektuan ematen den aurrekontua arras baxua edo ttikia da eta horregatik ez da animatzen inor kontsulta berria egitera. Diotenez, aurrekontua egokiagoa balitz, ez legoke etxegileak bilatzen prolemarik egongo eta Nafarroako Gobernuaren subentzioa ere araberakoa izanen zen.

LANPOSTU BERRI BAT HERRIKO ETXEAN.

Denbora gutti barru, langile bat gehiago izanen du Herriko Etxeak. Momentu honetan bi langile badira, (idazkaria edo sekretarioa eta albintea) aurrerantzean hirugarren bat izanen dugu, albinte postua betetzeko hain zuzen ere.

Diotenez oraingo albintea ez omen dago kondizio fisiko hoberenetan lanpostu hori betetzeko eta idazkariaren laguntzaile edo "auxiliar administratibo" bezala ariko da. Beraz, modu honetan hiru langileak eta beren eginbeharrak honako hauek izanen dira:
-Idazkaria edo sekretarioa.
-Idazkari laguntzailea (idazkaritza lanetan laguntzeko, itzulpen lanak egiteko e.a.)
-Albintea edo zerbitzu aunitzetarako langilea.

Denbora gutti barru hirugarren lanpostu honetarako deialdia "Nafarroako Boletin Ofizialean" agertuko da eta bertan adieraziko dute ze baldintza bete behar duten lanpostu horretarako aurkeztu nahi dutenak, ze proba edo nolako "examena" egin beharko den eta bertze xehetasun guztiak. Lanpostu fijorik gabe zabiltzatenak badakizue, bakarren batek aukera izanen du oraintxe. Dena den, langile berriaren hautatzeko probak ez dituzte legislatura honetan eginen eta hauteskunde munizipalak pasa ondoren izanen dira.

ESKOLAK BERRIAK.-

Aspaldikoa dugun arazo honek, badirudi soluzioren bat aurkitzea denbora gutti barru. Dakizuenez, hauteskunde munizipalak gainean ditugu eta Nafarroako Gobernutik hasi dira laguntzak eta subentzioak banatzen barra-barra. Hau mixeria!! Beti hauteskundeei esperatu behar, poltroietan daudenak gutaz oroitzeko!!

Aldi honetan suerte onean gaude eta horra hor hasteko 15 milioi eskaintzen dizkigutela gure eskolen (ikastola eta eskolaren) egoera penagarria zuzentzeko.

Lehengo batean, etorri omen dira (ez dakigu ziur nortzuk, ustez goi kargu "politiko-administratibo batzuk") eta Etxalarko eskolen egoera penagarrietaz jabeturik, laster soluzio bat emango diotela ziurtatu dute.

Ziotenez, beraiek dirua lortzeaz arduratuko dira eta Udalak berriz, solarra edo eskola egiteko lurra lortzeaz arduratu behar luke.

Gainera, ados omen zeuden, Herri Taldekoak diotenarekin, hots, eskol berriak osagarri bezala, frontoi eta jostatzeko instalazio berriak ekarri behar dituela berekin. Hau da, eskola egiten bada, balitekeela ere ondoan kiroletarako instalazio berriak egitea.

Orain, Herriko Etxearena da, lurra edo solarra gestionatzearen lana. Eta hori, diotenez, orain dagoen eskolaren segidan izan beharko luke, eskol berria oraingoarekin bat eginez haunditzeko asmoa denez, gibel aldeko landaetan barna eratuz.

EUSKARA ETA UDALA

Duela hiru hilabete, Etxalarko Udalak, argitaratzen dituen agiriak eta idatziak euskaratzeko itzultzaile bat kontratatun zuenean, bazidurien zerbait aldatzen ari zela... guttienez itxuraz.

Jakingo duzuen bezala, orain berri aprobatu zuten Nafarroan, "Ley del Vascuence" delako hori. Horren bultzatzaileak, ez preziski euskaltzale amorratuak, Nafarroa birreuskalduntzeko legea prestatu beharrean, euskarari lege baten bidez, mugak jarri bertzerik ez dizkiote egin. Lege kaxkar horren ondorioz, Nafarroa, hiru zatitan berezi dute.

→

Ur zikinen depuradora beheko landatan.

Zonalde ez euskalduna, zonalde elebiduna (hau da, euskara eta erdara ofizialak direna) eta, zonalde euskalduna.

Mendialde osoa, eta hor dago Etxalar, azken zonalde honetan dago. Beraz, Etxalarko Udalak, lan administratiboetan euskararen erabilera normalizatzeko obligazioa du. Hasteko, legeak agintzen duenez, zonalde euskalduneau dauden herrien izenak, euskal ortografiaz idatzi behar dira. Hau da, Etxalar "tx-kin) eta ez Echalar.

Instituzioekin izan ditzaken harremanak, euskara hutsez izan daitezke. (Diputaziora edo bertze Udalei zuzentzen dizkion paperak). Horrez gain, herritarrok, eskubide guztiak ditugu euskaraz zuzentzeko Udalari eta nola ez, euskaraz hartzeko erantzuna ere. Bertzeak bertze, legeak, gauza horiek betetzera behartzen du Udala.

Hasieran erraten genuen bezala, Etxalarren, lege hori ez da betetzen oso-osorik. Euskara, bigarren mailako hizkuntza jarraitzen du izaten.

Argitaratzen dituen agiriak bi hizkuntzetan idatziak daude, lehenik erdaraz, gero euskaraz.

Inpreso ofizialetako menbreteak eta Udalak dituen "kuño" guztiak, erdaraz bakarrik daude.

Udal sesioetako paperak, erdaraz bakarrik argitaratzen dituzte. Ostatuetan jartzen diren agiriak ere, erdaraz bakarrik.

IGANTZI

BESTA EDERRA MARTXOAREN 1ean.

Ohituraz hartu den besta bat izan zen martxoaren 1ean Igantzin. Hau da, "lehengo gazteen eguna".

Herriko gazteek antolatu zuten berriro ere eta arrakasta handiz gainera.

Meza ondoren hasi zen eta eguneko gauzarik interesgarrienetarikoarekin, emakumezkoen pilota partidua hain zuzen. Ez genuen, egia erran, horrelakorik pentsatzen baina lau emakumezko hantxe jarri zitzaizkigun inongo urduritasunik gabe palaz jokatzen eta nahiko polita gainera. Honelaxe jokatu zuten Mª Jesus Zarra eta Elena Ketegi, Anuntxi Txoperena eta Mª Paz Petrikorenaren aurka. Ikusten duzuen bezala badira hemen ere abizen famatuak. Gainera guzti hau Lazkao Txiki eta Madariagaren komentarioekin, pentsa zer nolako giroa zegoen Igantziko pilota lekuan.

Pilota lekuko ospakizunak bukatu ondoren denak Biltokira hurbildu ziren bazkaltzera. Txiki xamarra geratu zitzaigun nahi zuten guztiak sartzeko baina azkenean inor ez zen kanpoan gelditu.

Han, berriro ere, Lazkao Txiki eta Madariaga izan genituen alaitzaile, Lazkao Txiki bere txisteekin batez ere.

Ondoren Jaione, herriko trikitilari gazteak jo zuen eta ez nolanahi, arraso poliki baizik.

Eta poliki-poliki giro ederrean, batzuk musez eta bertzeak partxisez jokatuz ederki bukatu zen eguna. Hurrengo urtea arte.

HERRIKO KARRIKAK MOLDATU

Herriko saneamendua egin ondoren gaizki gelditu ziren karrikak eta pasa den bi asteetan moldatze lanak burutu dituzte. Bazegoen horretarako beharra ikaragarrizko zuloak eta saltoak bait zeuden kaleetan zehar. Ongi etorria izan dadila moldaketa.

LESAKA



KANPO SANTUA

Dirudienez Lesakan bertze herrietan bezala, jende askorik ez da jaiotzen baina, proporzioan, gehiago hiltzen da.

Ia badira urte batzuk jendea eskatzen hasia zela kanpo santua handitzeko eta uste dugu aldi honetan baieztatu dutela hori egiteko asmoa.

Erabaki hau herriko etxeak hartu zuen azken aldi honetako pleno batetan.

Dena den oferta bat aurkeztu zuen, ondoan dagoen belarsoruaren jabeak,
Iganacio Arcelusek hain zuzen zati bat saltzeko. Terreno honek 7,8 area, 74 zentiareakoa da, errealitatean 7500m² baldin baditu ere.

Azkenean aho batez erabaki zen terreno hau erostea, beharrezkoa denez kanpo santua handitzea.

Terreno hau 4.000.000 pezetatan erosiko da. Bertze aldetik Alkate jaunaren eskutan (Felix Irurzun) gelditu zen tramite guztien lana berak egiteko.
Beraz lasai egon zaitezte, kanpo santuan txoko azkarki izanen bait dugu.

ASILO BERRIA

Azken bolada honetan tirabira franko sortu dira asiloaren inguruan.

Tirabirak, segun eta nola hartzen ditugun. Asuntoa da egia esaten duena gaiztoa dela eta gainontzekoak santu batzuek.

Beno hori alde batera utzi eta goazen mamira. Nahiko kezkatua sentitu zen Lesakako jendea zera, erran zutenean monjak joan behar zutela herri honetatik, baina hango zahar eta guzti, horrek pentsatzekoa eman zion jende adintuei batez ere, ikusirik biharko egunean nora joanik ez zutela.

Joateko erabakia hartu zuten, Nafarroako Gobernuak 30.000.000 milioi eman ziolarik, kanpora joateko baina lehendik bazegoen hor saltsa, zeren hau erabaki baino lehen, oraingo asilora bisitatxo bat egin bidenabar, ikusi zen etxe hori ez zegoela kondizioetan hainbeste jende hor edukitzeko, batez ere garbitasunaren aldetik.

Gertatzen dena da etxe hori duela urte pila batzuk egin zela eta berehala dagoela batere aldatu gabe eta ezin dena ameittu da adintuek garbitasun minimo batzu gabe, posibilitateak izan da. Honek dirudienez suposatzen zuen gasto pilo batzu, eta hobe zela berri bat egitea eta hortxe gaude ea zer gertatzen den.

Azken bolada honetan hainbat bilera izan ondoren zerbait egitea lortu da. Nafarroako Gobernuaren Sailako batzurekin bilera bat egin zuten Asiloaren inguruan sortutako arazoa dela eta.

Honen edukia hau zen gutti gora behera. Sanitate eta "Bienestar Sozial" sailekoak ados daude asilo berri bat egiteko baina herri mailan, estadistikak adierazten duenez herriko adintuen kopurua 80koa da. Nafarroako Gobernuak Asilo hau egiteko %75eko diru laguntza emanen du. Bilera honetan ere, eta erreferentzi bezala hartzeko, adintu bakoitzaren egoitzak 2 miloi pezetako gastua izango zuela erran zen. Aldi berean aipatu zen zein nolako laguntzak izango ziren mantenimendu aldetik behin Asiloa martxan jarri ondoren. Hau dena ikusi ondoren, oraingo Asilo ondoan dagoen lur zatia izango zela lekurik aproposena berria egiteko eta han egiteko erabakia hartu zuten.

Pedro Pas Arriazu arkitekto jauna arduratu zen zona horretako estudioa elaboratzeko.

Beraz suerte pixka batekin gure aitton-amonak hemenedik aintzinera bere maneran, eskubide osoarekin lasai eta gustora bizitzeko aukera izango dute.

Horretaz gahinera Fermin Altzugarai zinegotziak, etxe honetan aldi berean zaharren egoitza bat antolatzea proposatu zuen. Hori ere interesgarria izango litzateke, zeren herri honek ez bait du horrelako lokalarik eta normalean zaharren egoitzak momentu honetan ostatuak bait dira.

Ea zer gertatzen den.

BORTZERRITAKO OSASUN ZENTROA

Momentuan erran dezakegun gauza bakarra hau da: hemengo medikuek eta erizainak kontsulta han egingo dutela apirilatik aurrera. Bertze gainerako zerbitzuak, hau da espezialistak, odola-ateratzeak e.a. pentsatzen da ekainetik aurrera hasiko direla.

Hau dena martxan paratzea lan handia da, sekzio guztiek ekipatzen eta antolatzen denbora aunitz pasako da eta lasaitasunarekin hartu beharko da asuntoa.

GOIZUETA

Kruki belea desagertu da.

Agur bero bat Ttipi-Ttapa zale guztiei Goizuetako herritik.

Urte berriarekin batera, notizi berriak ere gertatu dira Goizuetan. Ttipi-Ttapa berriz belarriak erne gure artekoak denori jakin arazteko. Ikusi duzuen bezala, denetatik zerbait badago: herritarrak mugitzen direla seinale. Lehenbiziko notiziari ekin baino lehen, abenduko Ttipi-Ttapak harrera ona izan zuela esan beharra dago, gure neska mutiko dantzarien artean batez ere, beren argazkia atera zelako.

Hara hemen gure lehenbiziko notizia; herriko neska mutikoak kexa daude Benaibordako Kruki belea herrira beraiekin jokátzera jaisten ez delako. Krukik arrunt ongi pasatzen zuen Goizueta zerutik ikusiz, etxeko balkoietan uzten zizkioten janari apurrak janez, umeekin jokatuz...

Lehenbiziko notiziaren atzetik, hona hemen bigarrena: lehengo legeari segituz, Bautista Loiarte Zubieta inguru honetan lanean ari den azkeneko errotaria dugu. Azarotik apirila bitarte lan egiten du Erratetako errotan. Lanaren truke artoak pixu galera egiten duenean laka eta lerma kentzen du eta artoa lehorra dagoenean laka besterik ez. Laka eta lerma aspalditik erabili izan diren neurriak ditugu; laka bi kilo arto hartzen duen kaxula da eta lerma, berriz, kg eta laurdena hartzen duena.

Bigarren notiziaren atzetik eta laugarrenaren aurretik, hementxe duzue hirugarrena: Arano eta Goizuetako herrien lurraldeetan badaude gaur egungo Kanpo Santuen eginkizun berdintsua orain dela 3000 urte betetzen zuten harriz egindako hilobi batzu. Zirkulo formakoak batzu, mahai baten modutxokoak besteak. Lehenbizikoak harrespila, lamibaratza, mairubaratza, baratza zaharreko "cromlech" izena dute; bigarrenak trikuharri edo "dolmen" delakoak dira. Kontua da, hauek zer diren jakin arazteko mendian seinaleak patzeko egitasmoa daudela eta lagun talde bat lanean hastekotan dagoela Gorosti Natur Zientzi Elkartearen iniziatibaz eta Goizuetako Humore Ona Elkartea eta Herriko Etxearen laguntzarekin.

Hiru eta lau...hogeitamalau: aurtengo inauteetako mozorroek gerra ezkeroztik jantzi ez diren gonekin jantzi ziren. Izan ere, gure inautek gutxi aldatu badira ere, "zagi-dantzan" partaide ziren mozorro batzuen jantziera aldatu egin zen eta, mozorroek, azkeneko urte hauetan baztertuta zegoen usario zahar honi eutsi nahi izan diote.

Bost, Ezponda zaharraren perrots: Goizuetako herriko kuartelean (Juan Martinezenea) dago notizia. Kuartela, ez duzue jakingo seguru aski, herriak berak eskatuta paratua izaten omen da. 1.914. urteko kontuekin ari naiz eta ez da komeni orduan hartutako erabakiak gaur eguneko ikuspegitik begiratzea, baina hor daukazue datua. Gainera, ura, argia, farmazia eta kuarteleko haurren eskola debalde izatea,

honera etortzeko baldintzak omen ziren. Dirudienez herriari gustora hartu diote eta oraindik behintzat hemendik joateko asmorik ez daukate.

Herriko Etxeari inola lizenziarik eskatu gabe, kuartela berritzen hasi ziren 1.986. urtean. Herriko Etxeak obra hauek gelditzeko agindua bialdu zuen kuartelera, baina hemen ez zioten jaramonik egin. Herriak Gobernu Zibilera, Diputaziora eta Audientzia Territorialera jo zuen eta, hauetakoren baten eraginez, obrak gelditu ziren. Momentu honetan Herriko Etxeak bi aldetik ekiten dio arazoari: zigor expediente bat ireki du Herriko Etxearen aginduei kasu ez egitearen errudunak aurkitzeko eta, beste aldetik, Goizuetan obrak egiterakoan.... bete behar diren baldintzetara egokitzen ez direlako, ez zaie lizentziarik eman. Gogora dezagun "Juan Martinezenea" Herriko Etxearen etxea dela eta honetan egin nahi dituzten obrak 23 milioi kostako liratekeela.

"Sei...ttuko" genuke baina azkenekoarekin bukatu egin behar: Ttipi-Ttapa hau kalera ateratzen denerako, udal hauteskundeetan parte hartzeko asmoa duen talde berria osatuta egongo da. Beren partaideak, batzuk gazteak, besteak zaharragoak, herritarrak denak laister beren egitasmoak azalduko omen dizkigute.

Gure hurrengo aldizkari bitartel Ongi izan!



Goizuetako herria.

GOIZUETA KEAZ KUTSATUTA

Egun batean jeiki nintzen eta kanpora atera. Dena oso berde zegoen, eguzki ugari eta txorien kantuek guztia alaitzen zuten. Plazara joan nintzen eta jende asko zegoen.

- Zer gertatzen da?
- Gizon batek lantegiak jarrinahi ditu.
- Lantegiak? esan nuen nik.

Hurbildu nintzen eta gizonak esaten zuen:

- Nik jartzen dudan lantegiekin denak izango dute lana.
- Bai, bai! - esaten zuen jendeak.

Hurrengo egunean denak lana zuten lantegiak egiten. Sei hilabete pasa ondoren, lantegiak eginda zeuden. Handik bi astera hasi ziren lanean.

Lehenengo ez zen deus nabaritzen baina gero ke misteriotsu bat atera zen, gero txoriak desagertu, zuhaitzak beltzatu... Orduan jendeak nagusiari galdetu zion:

- Zer da ke hori?
- Deus ez, zuek trankil.

Arrunt triste zegoen dena; ez zen eguzkirik ikusten. Egun batean, ehizako denboraldia etorri zenean, gizon bat oso gaizki jarri zen. konturatu ziren usoak kutsatuta zeudela ke hartaz. Orduan lantegiko jabeari esan zioten:

- Begira zer egin duzun zeure lantegi nazkagarri horrekin!

Eta denen artean bota genuen Goizuetatik. Ordu ezkeroz ez dugu lantegirik ikusi nahi.

Nerea Miranda.
7. maila Goizuetako Eskoletan.

DONEZTEBE



Malda-Errekako eskoletako jostalekua.

DONEZTEBEKO ESKOLAN IÑAUTERIAK

Herrian bizi den giroak eraginda, eta dituzten bereiztasunagatik, aurten iñauteriak bereiziki ospatzeko asmoak sortu ziren gure eskolan. Hori dela eta zenbait ekintza burutu ziren aste oso batetan zehar, otsailak 16an hasi eta 20a bitartean.

Iñauteriei nolabaiteko hasiera ofiziala emateko, astelehenean, eguerdiko bi ordutan eskolako eskusoinu joleek giro aparta paratu zuten ikasleen artean; astearten, J. Txueka genuen gure artean, Nafarroak dituen Iñauteriei buruz ikusentzuteko montai bat bota zen eta honela, Iñauteri hauetako egun garrantzitsuenera edo behintzat alaienera iritsi ginen. Egun hortarako jadanik, zenbait ikasle eta irakaslek gure mozorroak prestaturik genituen eta eguraldiari gogor eginez hor atera ginen gure eskusoinu joleekin Donezteberа, kalejira eder bat egitera. Herriko frontoi zaharrean dantza eta salto egin ondoren berriro eskolara itzuli ginen, ordurako, Guraso Elkartekoek meriendatxo eder bat prestatua zuten eta umore onez hortxe bukatu genuen gure IÑAUTERIEN ASTE berezia.

ZUHAITZAREN EGUNA

Urtero bezalaxe udaberria heltzekin landare berriak landatu nahiean hor bildu genituen gure herrikoak diren zenbait zuhaitz mota: pago, haritz, laritz,..., aitzurra hartu eta Goi Ziklokoak Petiteako Borda inguruan aritu ziren beraien aitzurrekin eta irakasleen laguntzarekin landaketa berriak egiten.

ZABOR ERREZIKLAIAREN ERAKUSKETA

Din-Dana taldeak antolatuta Donezteberko kontzentrazioan zabor erreziklaiaren erakusketa bat eratu da. Bertara Malda-Erreka guztiko eskoletako haurrak etorri dira erakusketara bisitatxo bat egitera, kontzentrazioko ikasleak ere egon dira eta ohartu ere gizarteak gaur egun duen arazo larri hortaz.

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK

Aste Sainduko oporraldia dela eta hauek kontent hasteko, eskolan, azken egunean antzerki emanaldi bat egingo dugu bertara SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK etorriko direlarik.

DONEZTEBE ETA IHAUTERIAK

Herri hontako ihauterien martxa beti jende berdintsuak eramana izan da: karroza, afari, bazkari antolaketa... noski beti dirua faktore delarik. (Hau da, bakoitzak sakela ireki behar duela ihauteriak prestatzeko).

Mozorro kontuan, jende gehiago animatzen da kaletan barna ibiltzea nahiz eta kaleratzen den jende guztiak ez parte hartu.

Aurten guzti honi arazo batzuk erantsi zaizkio:

Urtero erabilitako lokala beste ekintza batzutarako erabilia izan da (alhondiga). Udaletxeak jendearekin solastu gabe eta momentuan alternatibarik aurkeztu gabe erabaki zuen afera hori.

Zentzu honetan kontutan hartzeko da lokal honetan gastu batzuk egin zirela eta zati hori izan dela okupatua izan dena.

Horrela, ihauterietan urtero parte hartzen zuen gaztedia aurten banatua egon da. Arazoa, batzuk ez dutela kontutan hartu lehen aipatutako afera hori eta besteei ez zaiela batere ongi iduritu. Eta honela, sektore bat ihauteriak urtero bezala ospatu gabe gelditu da protesta moduan.

Oraindik denbora pixka bat falta da heldu den urterako baina ia ihauteriak jatorragoak gertatzen diren herri honetan (kolaborazioak falta pitin bat egingo luke).

"ARKUPEAK" JUBILATUEN ELKARTEA

Malda Errekako Jubilatuen Elkerte honek ez du denbora aunitz martxan hasi zela baina ekintza franko egin ditu eta hemendik aurrera ere ez daude geldirik egoteko. Urte honetarako egitaraua hau izango litzateke:

Alde batetik, Donezteberko "Asilo Zaharra" lortu, bilerak eta bertze edozein eginkizun egiteko.

Martxoan, Seguritate Soziala, zaharren elikadurari eta bertze zenbait arazori buruz, hitzaldiak antolatu dituzte.

Apirilean, Sunbillako Franzisko Gragirena (97 urte) eta Labaingo Franziska Albistur (94 urte) omenduko dituzte.

Maiatzatik Urria bitartean bidaia mordoska egiteko asmoa dute. Urriatik aintzinera zenbait lehiaketa ere antolatuko dituzte, herri guztietako mus txapelketak, kalderete lehiaketa e.a.

Eta azkenik urtea ongi bukatzeko abenduaren 31ean afari bat egingo dute.

ITUREN

MESON.-

Orain dela hamar urte gutti gora-behera, orduko udaletxeak, Donostiako hirukote bateri udaletxe osoa eperik gabe traspasatu zion.

Herriari kontsultatu gabeko gauza izan zen. Orain dela botspasei urte hirukote honek, saldu nahian, udaletxeari eskeini zion baina udaletxeak ez zuen erosi nahi izan, diru falta adieraziz.

Orain berriro ere udaletxeari eskeini diote hamar kilo t'erdi eta hilabeteko errenta eskatuz. Dena den, oraingoan udaletxeak ez baldin badu hartzen, kilo batzuk dituen edonorkek bereganatu dezake. Ea behingoz Iturendarren eskutan geratzzen den!!

IHAUTERIAK.-

Ederki igaro ditugu. 500 kiloko txekor bat jan dugu.
Bost egun jan eta edan, dantza eta dantza ezer gehiagotaz enteratu gabe pasa ditugu.

Jende gutxitze bat nabaritu dugu Zergatik ote? Nahi duenagatik izan dadila guri bots axola!! herritarrak elkarrekin hobekiago pasatzen dugu eta. Dena den, publizitate ezagatik izan dela uste dugu, eta urtarrila uste baino beranduxeago akitu delako.

Larunbatean zaharren eguna ospatu zen, bertsolari, trikitilariak hauen gorputz lirainak animatzeko ekarri zirelarik.

kontsulta

Noizbait, azkenean,... urtea pasatu ondoren, kontsulta berritu dute. Arrunt ongi gelditu da, bi kontsulta ditu bat medikuarentzat eta bertzea erizainarentzat, bakoitza bere materialekin. Itxaroteko gela ere ederra da, musika eta guzti. Bi komuna, beste gela ttiki bat eta almazena ere badu.

Kontsulta hau, hiru herriei dagokiona da, hain zuzen ere Zubieta, Ituren eta Elgorriagari. Hala ere, Ezkurra eta Erasungoak ere etortzen ahal dira, mediku eta erizain bera bait dute. Lehen, bost herri hauek bi partidu medikutan zatituak zeuden, bakoitzak bere medikua izanik. Geroago, orain dela 15 bat urte edo, batu erazi egin zitzaien. Iturengo medikua joan egin bait zen eta Ezkurrakoari beheko herri hauek gehitu. Beraz, mediku plaza bat kendu. Geroztik bost herri hauek Partidu bat osatu dute. Geroago, orain dela 8 urte atera zen erizainaren plaza.

Oraingo aldaketa sanitarioekin, Erreformarekin, partiduak desagertu egiten dira eta "Osasunaren Oinarrizko Zonak" sortu. Zona honetan, Doneztebe, Labaien eta Sunbillako partiduak parte hartzen dutelarik.

Aldaketa honek, beste modu batera lan egitea eskatzen du. Hasteko, Malda Errekako Osasun Zentrua martxan hasi da eta hor zenbait gauza berri egiten hasi dira. Esate baterako Iruñera joan beharrik ez dago odola-ateratzeak egiteko, bertan egiten bait dira, baita beste zenbait ekintza, une honetan eskolako osasun arloaren barnean ikasleen errebisioak, haurdunei amatasunerako prestaketa, mediku eta erizainen bilerak.

Hala ere, herrietan kontsultak pasatzen jarraitzen da ordutegian aldaketa batzuk egin ondoren; jendea aurrez gelditzen da kasu askotan medikua eta erizainarengana joateko, zitatuak dira. Haurren eta haurdunen kontrolak egiteko, eta abar. Etxeetako ikustaldiak kronikoei eta kontsultara etorri ezin dutenei ere eginez...

Gauzak hobetzen ari direla dirudi, lehen baino zerbitzu egokiagoak daudela. Baina, oraindik gauza anitzen beharra sumatzen da, esate baterako asistentzia soziala beharrezkoa da eta ez dago. Jendeak, herritarrek ere gauza hauetaz, eta azken finean osasun arazotaz gehixeago kezkatzeak garrantzia haundia du. Nolabait ere parte hartu beharko luke martxa honetan, gauzak hobetzeko eta berriak lortzeko.

DENDA.-

Aspaldidanik espero genuenez azkenik jarri digute. "Tresenea" etxean "spar" deitutako denda iriki bait dute. Eusebio Fagoaga bertsolariak. Bazen garaia! Aurrerantzean Itturendarrak ez dute Doneztebera joan beharrik izanen beren despentsak betetzeko mamiaren bila.



ZUBIETA



Aurtengo negua nahiko zuria izan dugu. Bi aldiz egin du elurra eta oraindik hirugarrena falta omen da.(Erori duk!). Egun batzutako polita da baina aurten "pasada" bat izan da, dena ormaturik bait zegoen eta oinez edo kotxez ibiltzeko nahiko lan. Zerbait egin behar zen eta nola ez, bandoa "herriko kaleak garbitu behar dira". Etxetik hartu altxurra eta pala eta segi "kaminero" lana egitera.

Batzuek kaleak garbitzen eta herriko artzaiak bordatara ardiak moldatzera. Nahiko lan izan dute artzaiak elur horiekin, bildotsak jaiotzen hasiak eta ezin atera soroetara. Hor ibili behar egun guzian bordara joan, herrira etorri gora eta behera, Armizkoako egur lotea hartu dutenak bezela. Han ere gora eta behera ibili beharko pistaraino egurra ekartzeko. Poliki ibili behar malda txar haietan azidenterik ez izateko, lehenagotik nahiko azidente izanak ditugu herrian eta, batez ere azkeneko hilabete honetan.

Alde batetik Andrea, eskolako autobusetik jeitsi ondoren furgoneta batek jo eta lurrera bota, eskumuturra hautsia. Gero Santi, zuhaitz planta jartzen ari dela belaunak "krak" egin eta menisko edo belauneko esgintzea.

Futbito partidoa jokatzen ari dela gure Ezekielek kriston ikaria eman zigun; buruan golpe bat hartu eta gero gizona xutik ezin egon, bakarrik sustoa ederra izan zen. Baina hurrengo igandean beste futbito partidoan ostiko eder bat eman zioten belaunean Ezekieleri eta berriz ere izorratua gizona.

Beste aldetik Joinas; arto zakoa mugitzen ari zela oinak "kras" egin eta "esguince de tobillo". Aste honetan berriz Luis lurrera, eskua handiturik etxera.

Hau duk, hau herriko martxa, eta oraindik sendatu gabekoak, adibidez Mikel,Iñaki eta Benatzio: nik uste dut Donoztebeko Osasun Zentro hori, Zubietan hobeki egonen zela.

Eta bukatzeko istripuekin, azken berri bat, Fermineneko Perikok kriston eskapada egin omen du traktorearekin egurra ateratzen ari zela. Beharrik, berak ez du ezer baina traktorea bi pusketan gelditu omen da. Itxoin piska bat Perikok berriz istripu bat izan du, burni batekin suduria hautsi.

"IKARAGARRIZKOA"

Zer gertatzen da Zubietako kunetekin?. Urtean behin garbitzen dituzte, eta hori garbitasuna egin dutena!. guttienez, metro bateko zuloak egiten dituzte. Norbait erortzen bada kunetara, hezur guztiak hautsiko ditu. Jendea ikaratua dago. Kotxe bat etortzen bada "a toda leche" non sartu behar dugu oinez gabiltzanean?. Kunetak sobera handiak dira han sartzeko. Behin sartzen bazara, ez zara gehiago aterako handik. Eta zer gertatuko da kotxe bat sartzen bada kunetan?. Ezta gruak ere ez du aterako handik.

Oportunitate hau probetxatzen dut premiazko dei bat egiteko txoferrei: mesedez, polikiago ibili zaitezte, Zubietako rektan

eta kurbetan ere. Bestela eroriko zarete errekara, edo kunetara, eta makurragoa izanen da.

Ikusi dugu zer gertatu zitzaion Andreari autobusatik jautsi zenean: eskua hautsi bait zuen.

Eta ez Zubietan bakarra, baita ere beste lekuetan ere trankilago ibili zaitezte. Ez dabiltza espiak zuen atzetik eta.

Gai honetaz mintzatzen ari garenez, Ttipi-Ttaparen efektibitatea adierazi nahi dut.

Azkeneko aldian proposatu genuen kotxe fantastikoa zubitik kentzeko, eta hara nondik, nola kaso egin diguten. Hiru hilabete beranduago, baina gutxienez kendu dute handik.

Baina denak ez dira akzidenteak edo istripuak, kotxeak eta kunetak. Ihizturin ekintza onak ere izaten dira eta azken bolada honetan bi basurde jate egon dira, eta zer nolako basurde jateak halajainekoa!. Primeran prestatuak, segidan janak, ikusi eta ez ikusi batean.

Pentsa zein giro sortu zen "soziedade" bat egiteko zurrumurrua zabaldu zela.

Antzarrak ere bisitatu ziguten, martxo hasierako gau batean.

Domintxingo Josebari kontatzeko eskatu genion eta to! ui! gaztelaniaz egiten digu. Etxeberriko Benitok ere egin zuen kontapen bat, gaztelaniez, eta biek ikusirik hauxe zen gutxi gora behera esaten zutena:

Martxoko lehen gauean izan zen Zubietako herria antzar ederrez bete zen gaua.

Batzuen ustetan kurrukuak ziren baina ez, keba, antzar ederrak. Josebaren penarako aitak hurrengo egunean jeiki erazi zionean zalantzan egon omen ziren basatiak edo errotakoak ote ziren eta ondoratu zirenean, eskopeta eta guztiz, mugitzen ez zirela ikusirik, errotakoak zirela erabaki eta, ez izaki.

Haren pena eta pesadunbrea!

Edozein modutan ez ihizturiak eta ez inor Zubietan jubilatuen tamainakoa,adintuak, berriro ere, exenplua ematen!. Ari omen dira ihirugarren adineko soziedade bat, gizarte bat antolatzen eta, inungo exajeraziorik gabe, herri eta etxe guziak mugitu dituzte.

Bilera lehendabizi, presidentea eta sekretarioa izendatzeko, Errandoneko Joakina eta Tolateko Jesus. Eta gero paperak, zerrenda edo listak egin beharrak, apunte hartu beharrak, karneten numeroak (nortasun agiri nazionala omen da carnet de identidad delako hori).

Makina buelta eman ditu Errandoneko Patxikuk-eta ez da presidentea ezta sekretarioa- holako lanetan gustora gainera! Eta gero dirua bildu, jubilatuen karnetak banatu, okerrak zuzendu eta momentuz bukatzeko, errifak saldu. Eskerrak azken hortako herriko nesken laguntza bilatu duela eta dagoeneko herriko etxe guztiak errifakin aspertuak daude.

Bat baino gehiago egonen da haserratua tartamudua ez dugulako aipatu oraindino. Egia esateko ez genuen aipatzeko asmorik, bainan, dirudienez, tartamudo gabe ez dago Zubietako berririk.

Bizpairu istiluetan sartua dugu Bata uran berriketan.Non eta bere lurraldeetatik tokatu tuberia pasatzea. Hau desgrazia!. Seguraski bere atzaparren seinalea herri guzien firmak baina kostosogoa izan da. Soro txar hartatik bizi zela esatera ailegatu zen!

Jubilatu famatua izaki!. Hain famatua ze, jubilatuen nagusi antzeko organizadoreak bere presentzia ukatu duela, bere ohi eta maldizioei beldurrez. Esaten dute eta egia izanen da pagatu gabe, eman behar diotela karneta eta Errandonean bazkari bat exkursiotan agertu ez dadin. Arrotuko ez da ba?

BAZTAN

BAZTANGO OSASUN ZENTRUA.-

Nafarroako sanitatearen erreforma barruan, osasun zentruak eraikitzen ari dira. Baztango hau ere iazko urrian hasi zen martxan, hala ere hasi besterik ez du egin, oraindik urrats gutxi eman bait du. Hasteko, mediku berria etorri da, baita bi erizain, zeladore bat eta beste administratibo berria ere. Beraz, gaur egun zentru horretan, 2 mediku, 3 erizain eta pediatra batek kontsulta pasatzen dute. Bertako sanitario hauen asmotan zenbait gauza aurrera ateratzeko gogoa badago, horrela: analisiak egiteko odola ateratzea, tetano-txertaketa aurrera eramatea, etxeetako ikustaldiak egitea, eskolako osasuna zaintzea eta abar.

Zentru honetatik, Baztango osasuna bizkortu, indartu eta zaindu nahi da. Erran beharra dagoena zera da, beste herrietako sanitarioak oraindik ez direla hauekin lanean hasi. Eta zenbait gauza aurrera ateratzeko, hartu emanetan jartzea behar beharrezkoa da.

Herritarrei, aseguratuei, sanitarioak eta azken finean gobernuak, zerbitzu koordinatuak, egokiak eta ahal den eta hoberenak emateko obligazio bait du.

IRRATIA.-

Xorro-xorro-xorro-XIN!!
FM 96 aren inguruan.
Jotake ari da. Antenatik ere txispak ateratzen zaizkio. Entzuten? Ikusten? Martxa polita daramaki.

Baina pena bat, Malda Errekakoak kexatzen hasi dira, han ez dutelako onda hau hartzen. Antenatxo berri bat paratuz gero... Zenbat kostatuko ote litzeke? 20.000, 40.000 pzta. Zer da hori, adibidez, Udaletxeentzat? Eta Xorroxin alde horretan ere entzungo lukete. Saiatu egin behar!

Azken finean irrati hau benetazkoa bihurtzen ari baita, gero eta kalitate hobe eskeiniz eta programazio oso bat aurrera eramanaz.

Xorroxin, xorro-xorro ari baita.
12tan: musika.
12-14 ordutara:
Egunon.
Bitxikeriak.
Berriak.
Gai berezia.
Herrietara deia egin, bertako berriak jakiteko.
Konkurtsoa.
14,30:
Gaiak.
Astelehenetan: Kirolak.
Asteartetan: EHNE eta Sanitarioak.
Asteazkenetan: Nekazaritza.
Ostegunetan: Lantokiko arazoak
Ostiraletan: Udaletxeko berria
Larunbatetan: Bertsoak.

Larunbatetan ere haurrak eramaten dute irratsaio berezia.

Igandetan, 12tatik ordubietara bi pertsona aritzen dira musika bati eta besteari dedikatuz.

Arratsaldez berriz: Parte hartze librea. Zenbait lagun edo taldeak dira arduradun; errate baterako: Guk, Beti zurruta, Arizkungo Zirrildak, Jarrai, Lanbide Eskolakoak, 10ak eta pixile, Baztango zerri bazka, Juana Mª, Elurra, Xamularrok....



Xorroxin irratia.

Baztango Osasun Zentrua.

ELIZONDOKO IKASTOLAKO ZAZPI GURASO EPAITUAK.-

Joan zen otsailaren 21ean, Ikastolako zazpi guraso epaitu zituzten Elizondoko Justizia Aretoan, Udaletxe hortako zenbait zinegotzi iraintzeagatik.

Gurasoen aurkako salhaketa, bailara hontako alkate den Julio Iturraldek aurkeztu zuen 1985ko azaroan, beren seme-alaben ikasketetan arazoak zirela eta ondoren guraso talde honek izan zuen jokaeragatik.

Hauzitan sartuen artean, Pedro Maria Esarte zinegotzia eta orduan juntakide zen Txomin Goienetxe aurkitzen ziren.

Epaiketa goizeko hamaiketan hasi zen, Elizondoko hauzitegian. Julio Iturralde saiatu zen kausa hau deliktu bezala agertzea baina epaikariak errefusatu egin zion.

Prozesatuek eta salhatzaileak bakoitzak lehen egindako deklarazioetan baieztatu ziren. Lekukoek adierazi zutenez, gurasoen aldetik ez zen bortxarik egon baizik eta hauen helburua, Udaletxera sartu zirenean, alkateak, hauen semealaben ikasketarako irtenbide bat ematea zen, egun hortan bertan, goizean, Guardia Civilek, orain ikastola den Pilarreko eskolatik kanpora bota bait zituen.

Fiskalak akusazioa zokoratu zuen, biren gain bakarrik mantendu zuen irainengatik falta arina.

Defendatzaileak bere babestuentzat absolbapena eskatu zuen, lekuko bezala joan ziren Polizi Nazionalen artean ez bait ziren adojarri, hauzitan sartuak erran omezituzten hitz iraintsuetaz.

Polizien ustetan gurasoek erandakoak, "viejo chocho" eta "dictador" irainek, inpresio haundi izan zuten jendeaurrean.

Defendatzaileak adierazi zuenez Alkatea ere, irainengatik, faltarin batean erori zen, Goienetxe juntakideen aurka hain zuzen ere.

Aipatzekoa da, lehendabiziko aldiz hauzitegiak eskatu zutenei euskaraz erantzuteko eskubidea eman zietela. Itzultzaile ofiziali ez zegoenez, Mariano Izeta, Euskaltzaindiako kidea proposatua izan zen zeregina hori betetzeko.



Apirilaren 5ean, Maurizio eta Felixek jaso zuten ederki merezitako omenaldia.

ZUGARRAMURDI

INOZENTE EGUNA

Denek dakizuen bezala, eguna hau aprobetxatzen da nahi diren barrabasakeriak egiteko, inork protestatzera deretxurik izan gabe (hori bai, sobera pasatu gabe...).

Aurten Zugarramurdin ikusi ahal izan ditugu barrabasakeri hauetatik ere bai, baina haundiena hau izan da:

Andres, Imanol, Juanitok... erosi zuten ez dakit nondik ahuntz beltz bat, soka bat lotu zioten lepotik ez niorat eskapatzeko eta titanlux pintura txuriarekin apaindu zuten ederki: alde batetik marraka-marraka zebra baten itxuran, eta beste aldetik bere izena eskribitu zioten: "ASUNTZION", eta hola, bere ahuntzarekin ibili ziren goiz guzia poteatzen ostatu guztietan barna.

Pentsatzen ahal duzuen bezala, ostatuetako jabeak seguraski izanen zuten gero nahiko lan pintura txuri hura bazter guztietatik garbitzeko.

Orain hantxe dago Asuntzion Urdanetxeko gibeleko belaiean bere destinua oraindik ezagutu gabe: salduko ote duten edo afari batekoz prestatuko ote duten.

EHIZIAN

Seguraski zuen herrietan zerbait iduritsua pastu izanen da egun horietan, ehiztariak kanpua xuri xuria izatean aprobetxatu dutela tirokatzeko mugitzen zen gauza guztia.

Bon,halako batean, arratsalde batez hospitaleko gibeleko aldean barna ibilki zirelarik ehizian Franzisko, Pedrit, Juan Mªri eta Ebaristo...bruuuummmm, agertu ziren animaleko ziztuan kokoak (Guardia Civilak). Jose Esteban Malastakoa ohartu zen eta ohiu egin zioten eskapatzeko eta lauak lau aldetara joan ziren: Frantzisko lurrean zen zilo haundi batean pastu zituen bi ordu gordetua, Pedrit beste hainbeste hospitaleko eskaleretan etzanta, Juan Mª, hatsauntua, eskopeta sasipean gordetuz etxera ailegatu zen, eta Ebaristo harrapatu zuten.



Galtxagorriren elur-kentzeko aparailua.

Harrapatu zuten eta alderdietan Juan Mªren eskopetaren funda, eta fundaren bidez eskopeta eta eskopetaren bidez Juan Mª.

Total: nola Ebaristo eta Juan-Mªrik oraindik ez dituzten 18 urte beteak, hantxe juntatu ziren Ebaristo eta Ebaristoren aita, Juan Mª eta Juan Mariren aita eta kokoak. Solas batzuk egin ondoren, iduri du kokoak ongi portatu zirela eta esan zutela ez zutela kontuan hartuko bi mutikoak gazteak zirela eskopetakin ibiltzeko, eta eginen zutela gurasoak harrapatuak izan balitz bezala. Eraman zituzten eskopetak eta orain multaren esperoan daude. Beste aldera, orain txoriak lasaixeago bizi dira bi eskopeta gutxiagokin.

ELURRA KENTZEKO APARAILUA

Azkeneko elurte hontan, egun bat inkomunikatuak gelditu ginen Zugarramurdin, gero azkenean agertu zen Diputazioko pala eta ideki ziguten herritik Dantxarirainoko bidea baina, orduko, herri hontako jende praktiko batzuk, martxa emanak ziren eta Diputazioko pala ailegatu baino lehen, herriko karrika eta baserrietako bideak garbituak ziren. Nola? Hola: Guantxeko Jesus eta Galtxagorriren artean, honen traktorearekin eta beste ez dakit zer gisako gauzekin, montatu zuten elur - kentzeko - pala- traktore- enjendro bat eta harekin harat eta honat, garbitu zituzten arras majo bide guztiak.

Hori bai, heldu den urterakoz berriz ere elur kentzeko aparailurik gabe gelditu gara. Inbentoak ez zituen erresistitu Galtxagorrik sartu nahi ziozkan kilometro guztiak.

Batez ere, beharrezkoa da eskerrak ematea Jesus eta Galtxagorriri.

LA TRIPLE "I"

Zuek pentsatuko duzue zerbaite banda terrorista edo hola izanen dela... ez preziski...bainan...

Begira, explikatuko dizuegu. Triple "I" hauexek dire: Ioseba, Iñaki eta Iker, 7-9 urtetako dea-

bru txar batzuk. Hiruak arras lagunak dire eta elkarrekin aritzen dire jostaketan, baina esan behar da ere bai, batzuetan beren jostaketak ez direla izaten hain jostaketak; hemen dituzue exenplu batzuk: igande batez Iriarteko oilategiko arraultze guztiak etxeko paretean plastakoan hautsiak agertu ziren, beste batzuk lurrean barna tortila eginak, bertzeak lehiotik kanpora botaiak, eta holaxe arraultze guztiak.

Zer gertatu ote da? Hau gauza misteriosua.

Egun berean arratsaldean, deskubritu zen misterioa: Josek harrapatu zituen Iker, Iñaki eta Ioseba etxe haundiko oilategian, bat bestearen muturrerat arraultze botatzen. Iosebaren explikazioa hau izan zen: "jostetan ari ginen, arraultze gerla egiten".

Hau ez da dena. Beste egun batez, Juan eta Mertxe beren zerritegira gaki zirelarik, bidean gurutzatu zituzten gure hiru pertsonaje hauek. Zerritegira ailegatu zirelarik edifizio guztiko elektrizitatea moztua zela ohartu ziren, tornilo multzo bat zerritegitik hartuak eta "norbaitek" karreteraren erdira botaiak eta barraiatuak ikusi zituzten; eta baita ere, torniloen kaja hura ederki ederki zinta aislantez etsia eta kajaren barnean, animaleko arratoin hil bat altxatua

Baina haundiena Jesus Bizkarrondokoari egin ziotena izan zen: bera ohartu gabe oilasko bat hartu zioten eta lepotik soka batekin lotuz, ibili zuten lasterka gora behera, gaixo oilaskoa, errestaka lurrean barna, jostatzeko kamioi bat balitz bezala; eta azkenean, aspertu zirelarik, soka berarekin lepotik zintzilikatu zuten eta hantxe utzi zuten dilindaka.

Gero Jesusek, begietatik sua botatzen zuenean zera esaten zuen: -"Harrapatu banitu momentu hartan, sartzen ditut hiruak buruz beiti etxeko ateko kaka moltzuan".

Donezteben ospatutako Nafarroako kantu lehiaketaren finalean, Koro eta Axunek lortu zuten jendeartean bildutako botorik gehiena.

KOMUNALAK GAUR

MARIO GABIRIA ETA DIPUTAZIOKO BATEKIN ELKARRIZKETA

Bi hilabete herri batzuetan, urte bat, bi urte bestetan ari gara, dira, dantzan, lurrak direla eta ez direla, pribatuak edo komunalak.

Asuntoa nahasia, hala fedea! Beitu! Badira lur puxka batzuk paperak, eskriturak, denetik dituztenak pribatuak direla esateko eta hor dator Diputazioa komunalak direla esanaz. Inguru hontako herri batean igual, ez da deus gertatzen, esan nahi dizut, Diputaziokoak datozte heuren mapekin, protesta bat edo beste entzuten da baina tira, handirik ez... Beste batzuetan, berriz, errekurtso ugari, paperezko mendiak...

Ikusirik, hau ikusirik, Diputaziora jotzea erabaki genuen Ttipi-Ttapakook. Diputazioko ateak. Batean jo, han ez dela! Bestean, egon berria zela gure kontakto hori. Azkenean mahai arteko pasilu aldrebes batetik ailegatu ginen nonbaitera. Lasai esertzeko, itxaroteko, hura zela nahi genuen tipo horren despatxua (bulegoa, aizu!). Jarri ginen, magnetofoiari pilak berritu ondoren eta egon, azaldu arte.

Oraingo honetan ezin kexatu, tipo majua, adinekoa eta lasaia, ez oso magnetofoi zalea baina, beno, holako batean hasi ginen.

Ordu beteko solasaldia izan zen, guk gehien batean entzun egiten genuen. Tarteka galdemoduren bat edo beste ere botaz.

"Diputaziori kezkatzen diona zera da; Komunalak diren lurrak, herriarenak bezala defendituak izatea. Beraz, komunala zaindu egin behar da. Eta ez da gutxi batzurentzako izan behar, baizik eta herri guztiarentzako.

Baina zer gertatzen da? (Jarraitzen du erraten Diputazioko tekniko honek) Bada begira, guk jakin nahi dugunean herri bakoitzeko lur komunalak zeintzuk diren ikusten dugu lur anitz aspalditik okupatuak daudela. Hau da, pribatuak bihurtu direla, nagusia dutela. Orduan, guk tekniko bezala ez diogu lur hori kentzen baizik eta erabiltzen uzten diogu. Erabiltze hori, desberdina izango da herri batean edo bestean, zeren eta herri hortako "ordenantzak" aginduko bait du nola izan behar duen; bestalde lur horren tamainoak ere eragin dezake. Dena dela, herriko udalek obligazio hau dute: herriko komunalak inskribatuak edukitzekoa hain zuzen. Baina zoritxarrez, guk badakigu hori ez dela horrela, ez dela egiten. Horregatik, orain hau egiten dugu: herri hotan dagoen dokumentazio zaharrena bilatu, bestalde Diputazio berak katastro zaharrenak ditu, baina zenbait orri, ia herri gehienetakoak, % 90 gutxi gora behera, 1930-1931ean nagusi berak sinatuak. Eta horretaz aparte, dokumentazio zaharragoa aurkitzen badugu haietara jotzen dugu, haiei kasu egiten diogu. Beraz, komunala zena komunal bezala orain ere izateko.

Ondoren, datu guzti horiekin, herri bakoitzeko mapa bat egiten dugu. Hor agertzen dena eta herrian gaur egun dagoenak ez du inongo antzik ere, noski!

Beraz, herri aurrean azaltzen dugu mapa hori eta etor daitezela kexatzera, benga! Lur bakoitzaren jabea, bere eskritura eta guzti dator askotan arrazoiez, lur hori berea dela esanez, ez dela komunala hain zuzen ere.

Orduan informe tekniko bat egiten da, eta hori letradu batzuen eskuetatik pasatu ondoren betirako erabakitzen da zer den lur hori eta aktan gelditzen da.
Horrela behingoz bukatu nahi da hainbeste kezka, ezinikusi eta maltzurkeriekin.

Lan hau ordenadoren bidez egiten ari gara eta lurrak nola zatituak dauden paratzen ditugu. Inskribatuak gelditzen dira. Lan hau egin ondoren, ezin da arazorik sortu. Gauza bakoitza bere lekuan egonen baita.



Baztango herriak.

Zenbait lurrekin gertatu den arazoa zera izan da, ez zegoela erregistratua eta erabiltzeko aukera zuenak beste bateri saldu egin diola, eta horrek hurrengo bati, laugarren saltzea gertatu arte. Orduan, arazo hau letraduen eskuetan gelditzen da. Heurek konpondu beharko dutelarik. Hala ere, ahal den guztia berreskuratu nahi da, baina zenbait kasutan oso zaila dela ere badakigu. Esate baterako laugarren aldiz saltzera ateratako alorra izan baldin ba, edo bostgarren aldiz inskribitua. Horiek zailak dira konpontzen.

Beraz, une honetan lortu nahi dena zera da: herritar bakoitzari bere lurrek zeintzuk diren erran eta komunalak argi eta garbi seinalizatu, herriaren propietatea bezala.

Hala ere, komunal bat duenak, erabiltzen jarrai dezake baina ordainduz. Zer, gaur egun erabili erabiltzen da baina ez da ordaintzen, beraz herriaren kaltetako besterik ez baita. Batek baino gehiagok lur komunalak hartuko luke, baina ez du esatebaterako tresnik lur hori lantzeko, beraz,... horrek ere lur horren onurak nonbaitetik jaso beharko ditu.

Hau da, lur komunalak erabiltzen dituenak, ordaindu dezala, eta ez da deus gertatzen.

Komunalen asuntu hau 1985ko Martxoan hasi zen astintzen. Komunalen legea azaldu ondoren hain zuzen.

Baina zergatik ez dira konunalak errespetatu? Ba hain zuzen ere, jendearen ezjakintasunaz, batzuren batzuk aprobetxatu besterik ez direlako egin. Garai batean irakurtzen, idazten zekin batek, eskola pizka bat zuenak lur horien jabe egiten joaten ahal zen, ilegalki baina legearen bidez eta besteak berriz, hitzez hitzeko salmentan fiatu izan ziren. Ustez berea zuen lurra... baina inongo inskribziorik gabe. Beraz...

Dena dela, arazoa zera da: bai udalen partetik, bai sekretario eta baita Diputazioaren aldetik abandono bat egon dela bestela ez bait ginen egoera honetan egonen. Horregatik orain dela ia 2 urte ekipo bat jarri da martxan, nolabait ere eredu batzuk aurrera eramateko asmoz".

Beraz, badirudi dena argi dagoela, gure inguruan bederen. Aintzinean komunalak ziren lurralde batzuk, iratzeak erabiltzetik edo beste erabilpenaren bategatik, konturatzerako batek baino

gehiagok bereganatuak zituen, paperetan jarriak, herentzietan... eta hara hor nondik Diputaziotik heldu direla asuntua garbitzera. Printzipioz ez dago gaizki! Baina zera, kezkak edo zalantzak bagenituela eta, bada ez bada ere eta behin Iruñean ginenez gero ba, Mario Gabiriarengana jo genuen, gauza hauetaz betidanik kezkatu den soziologo horrengana. Azaldu genion gurea eta luze hitzegin ere, hain luze ze aintzinako egoera jo genuela. Hitz laburretan errateko hara hemen bertako solasak:

"Komunalak zaharrak dira, aspaldiko gauza, lurraldeak sortu baino lenehenagoko gauza eta gaur diren baina ugariagoak, zabalagoak. Eta komunalekin batera auzolanak, kontzejuko batzarreak hau da elkar bizia zuzentzeko talde sistemak. Beraz, gaur egun ere gu gara, herria hain zuzen ere, nahi duena gorde, galdu edo aldatu erabaki behar duena.

Ehun urte izanen dira, gutxi gora behera, lur komunalak askoz ere ugariagoak ziren, errotak ere komunalak ziren, herriak egindakoak bait ziren, baita teileriak..... Garai hartako estatuari erregeari, burutu zitzaion pribatizatzea. Heuren ustetan horrela gehiago emanen zutela eta, hemen behintzat saltzera bortxatu zituzten herriko propietate gehientsuenak. Komunalak eta beste gauzak saldu eta kontsejuen martxa aldatu, batzarreak baztertu eta udala burokratizatu, sekretarioak ezarri, ... modernizatu. Lehengo sistema haiek txarrak zirela, eta batez ere, txarrak baino gehiago, zera ez zirela estatuak nahi zutenarekin bat etortzen, karlistak omen ziren, kaziken eskuetan omen zeuden, ...politika eztabaida azken funtsean, politika baino eguneroko bizimoduarekin loturik, noski, eta horregatik, egon zen, bertze arrazoien artean, aurkako postura. Nafar herri askotan Iparraldekoetan batez ere, nola edo hala kontra egiten saiatu ziren, eta kasu batzuetan arrakastakin ere. Hau da, garrantzi gehien zituzten gauzak gordetzen saiatu ziren, errotak eta antzekoak, soziedadeak egiñez, saldutakoa erosiz, berreskuratu. Lurrak, komunalak, ez zuten demanda haundirik izan, iratze lurrak bait ziren gehienak, eta gerokoak gero. Poliki, poliki, erabilpena zela eta, lehen esan dugun bezala, pribatizazio prozesua sortu zen.

Gaur ere, goitik heldu da aldaketa. Zein borondatekin egina den ez dakigu baina intentzio ona dutela esanen dugu. Ez da hori arazo larriena.

Teoriz diputazioak zera nahi du, herrikoa den propietatea berriz herrien eskuetan jarri eta hara hemen lehendabiziko galdera, herriaren eskuetan baina herriarekin kontatu gabe, nola?
Bai, gero herri bakoitzak bere ordena-

Saldias.

Bertiz-Arana

tzak egiteko ahalmena izanen omen du, baina norainoko ahalmena?

Zeren, hasteko, aspalditik kendu diete bai herriei bai udalei, benetazko erabakiak hartzeko posibilitateak. Gaur egun Diputazioa da hau edo hura, hemengoa eta hangoa, Estatuan edo Europan menpean ekonomi handien izenean, erabakitzen duena eta, askotan esan eta esango dugun bezala, zoritsarrez, gu, pertsonak, banaka ez gara deus eta talde txikika hagitz gutxi. Ez du merezi, hau mixeria!, explikazio garbiak. Zer proposatzen dute komunalentzat? Badute planifikaziorik eginik? Edo gaur pinuak eta bihar paguak izanen dira? Gaur behiak saniatu eta bihar kendu?.

Ez dira, ez, Diputaziokoak erru guztiak, errurik baldin badago. Hasteko Iruñeako parlamentu gisako hartan, mila interesa desberdinak elkartzen direlako eta denak tiraka, ondokoena ikusi gabe. Han guk jarritakoak egoten dira eta, hortaz, guk bilatu beharko genuke gure interesen defendatzailea.

Baina hortik aparte, etxean bertan, badugu zer eztabaidatu. Gu izan gara herrien aldaketak onartu ditugunak, bata besteen kontra aritu garenak, hark putada egin zidala eta beste horren attonak nere attonakin haserretu zela berrogei urte direla. Guk bota dugu batzarrea, komunala, auzolana eta hizkuntza, zeren gauza guziak loturik datozte. Galdu dugu elkarrekin hitz egiteko kapazidadea eta, barkatu baino, hau konpontzen ez dugun bitartean ahoa betetzen duen hitz hori, demokrazia, ez da kaka zaharra besterik izanen.

Benetazko auzolanen ordez auzolan inpuestoa edo zerga onartu dugu eta gero I.V.A.gatik kexatzen gara. Batzarreak ez dutela deustako balio eta udalak hustutzen ditugu, gero Diputazioa diputapena dela esateko. Euskararekin sortzen ditugun burrukak aspaldidanik famatuak dira. Eta komunalak? Beste hainbeste. Herri izpiritua ez badugu indartzen eta bide onatik, alferrik ari gara. Etor dadila Diputazioa, Gobernua edo Europa, hemen astozakila besterik ez dutela bilatuko!

Askoz ere hobekiago daude komunalak gorde diren leku bakanetan, kanpotik begiratuz behinik behin.

INAUTERIAK

Inauteriak ditugu, dudarik ez, gure herrietan ospatzen diren bestarik zoroenak eta aldi berean ere, inauterietan azaltzen zaigu, gure herriek duten bertze aurpegi hori. Aurpegi mozorrotua.

Oraingo honetan, inguru hauetako zenbait herrietan ospatzen dituzten inauterietaz ariko gara. Lesaka, Goizueta, Ituren, Zubieta, Arantza eta Etxalarkoetaz besteak beste.

Zako-zaharrak, Joaldunak, Mozorroak..., hauexek ditugu oraindik bizirik dirauten pertsonaiak eta euskal ihauteri zaharrarekin lotzen gaituzten hariak. Zenbait herrietan berriz, ezaugarri edo pertsonai berezi horiek galdu egin ziren duela zenbait urte, batez ere Frankoren garaian inauteriak jasan zuten debekuagatik.

Ituren

Ihautea eroa omen zen

(Udaberriari)

Azkeneko urte hauetan, Iturengo Ihauteriek berritzen doaz, zenbait aldaketa gertatzen, bizirik irauten.

Behar bada, Ttipi-Ttapa honetan ez ditugu fenomeno guztiak agertuko, gehien bat Ihauteriak egiten direnean ez delako bat sobera ohartzen zenbait aldaketetaz. Hala ere, argi dagoena zera da: urte batetako berria edo aldaketa hori gero errepikatzen den gauza bada, herriak onartu duen seinale dela, gustora egiten duena eta azken finean Ihauteriak mantendu eta indartzen duen zerbait dela. Ihauteriak negu gorrian,bizia adierazten dute. Alai bizitzeko joera. Indarra.

Gauza hauek idazterakoan, ez gara beste herrietako Ihauteriekin konparatzen hasiko. Hangoak edo hemengoak hobeak direla erraten. Herri bakoitzak bereak ditu, eta bertakoak ongi pasatzen badute horiek dire hoberenak. Iturengoak eta Zubietakoak egun berdinetan egin arren eta zenbait ezaugarri berdintsuak izan da ere, herri bakoitzeko Ihautea desberdina da, eboluzio desberdina daramaki.



Gain begirada emanez gero, hauxe nabarmenduko genduke bi herri hauetako Ihauteaz (Aurtiz ere tarteko dugularik):

1.- Ihaute egunak bereztea.
2.- Herri arteko Ihautea.

1.- Orain dela urte batzuk, San Anton egunean, Zubietan besta handia ospatzen zuten. Egun horretan bi herrietako jendea biltzen zen Ihaute eguna bereizteko. Gaur egun ez da horrela egiten, nonbait bilera horietako batean zera berezi zuten: urtarrileko azken igandea, astelehena eta asteartea egun seinalatu bezala. Eta orduko hitza, gaur errespetatu egiten da.

2.-Herri arteko ekintza berriz, ez dakigu noiztik heldu den, gaur egun egiten dena hau da: astelehenean Zubietarrak Aurtiz eta Lasagan barrena Iturenera etortzen direla eta asteartean Ittundarrak Aurtizetik pasa ondoren Zubietara joaten direla.

Bi egun horietan Aurtizkoak, astelehenean Zubietakoekin batera eta asteartean Ittungoekin aritzen dira.

Herri arteko agur honetan, joaldunak dira pertsonai garrantzitsuenak, dena dela , jendea mozortzen da eta baita zenbait karroza egin ere. Harat-honat honetan joaldunek, mozorroek, karrozek, soinujotzaileek, herritarrek eta "turistek" parte hartzen dute.

Hau da nolabait Ihauteen gaineko azala. Barrutik begiratuz berriz, gauzak ongi adieraztea zaila da, gehien bat konjuntuan hartuz gero. Historia, herri hauen historian ... ez dakigulako zer gertatu den baina badakigu arazo batzuk izan direla, badaudela, eta ia urtero berriren bat sortzen dela. Herri arteko tarteak, hutsuneak, ulergaitzak, penak... denetik.

Ittunen gaudenez gero, hemen bertan egiten den Ihautea azalduko dugu. Lehen egiten zena pizka bat gogoratuz, aldaketetaz mintzatu eta nolabait gaur egungoa bildu. Gauza hauek idazterakoan eta sobera ez nahasteko nolabaiteko zatiketa bat eginen dugu.

Alde batetik, egun bakoitzaren berezitasuna adieraziko dugu, bestetik, nortzuk diren parte hartzen dutenak, nola antolatzen eta nola funtzionatzen duten.

Ihaute egunak

Nolabaiteko hasiera, ostegunarekin ematen zaie. Egun horretan aretze bat hiltzen baita. 500 kilo ingurukoa izaten da eta gehienetan herritar bateri erosten zaio. Gauez, "puska" biltzera ateratzen dira. "Puska" biltze hori gauero egiten den gira da, Iturengo herrian eta Lasaga auzoan. Joaldunak gerrian larruak, joariak paratu eta isipua eskuan ateratzen dira, heurekin batera beste bi lagun, saskia eramanaz. Etxe bakotzetik pasatuz, ohitura den bezala arrautzak biltzen dira. Bitartean, sukaldariak afaria prestatuz doaz; gau horretan ez da jende anitz biltzen 15 bat lagun, eta gehienetan mutilak bakarrik. Afari horretan aretsiaren gibela eta jaten dira.

Benetako besta giroa larunbata arratsean hasten da, puska biltzaileak, soinujotzailea ere heuren gibeletik doalarik, herriri buelta ematen diote. Bitartean, jendea poliki-poliki ostatuan bilduz joaten da, ondoren afaltzera igotzeko.

Otorduak, herriko etxeko saloi handi batean egiten dira. 40-60 lagun aise elkartuz. Egun hauetan ezin da deus ere aurrez eratu, egun batetik bestera desberdintasun anitz izaten ahal bait dira. Gauzak sortu egiten dira, jokuak, abestiak, antzerkia, irria, bertsoak, joariak paratzea... Hala ere, bazkal eta afal ondoren, soinujotzailea aritzen da eta mahai bat erretiratuz, jendea dantzan: zortzikoak, arin-arinak, tangoak, baltsak, rock eta guzti.

Igandean, astelehenean, asteartean eta asteazkenean, gosaltzera ere joaten dira, hortarako ez dago ordu seinalaturik, etorri hala egiten bait dute.

Arratsaldez, eta goiko alde horretako jendea harat-honat hasten denean, soinujotzailea arkupeta jeisten da. Orduan, dantza "publikoa" bihurtzen da. Herrikoak eta kanpokoak aritzeko moduan.

Ezaugarri hauek egunero gertatzen direnak izanen dira.

Astelehenaren berezitasuna zera da: bertako joaldunak Zubieta eta Aurtizkoen bila ateratzen direla. Joariak paratzea herriko etxean izaten da. Denak, heuren larruak gerrian eta bizkarrean eramanaz, bi joari handi eta bertze bi txiki, isipua, painueloa lepo ondoan, gonak, albarkak, zapin xuriak, galtza urdinak eta ttuntturruaz jantzita ateratzen dira. Pausoari eutsiz Lasagako muturreraino. Han elkartzen dira beste joaldunekin eta Iturengo herriri buelta ematen diote. Herriko etxean salda hartu eta gero berriz ere itzultzeko. Egun horretan, mozorro, karroza eta herritar pranko izaten da (turistak ere bai). Bertakoak, Aurtiz eta Zubietakoak. Egun honetan Iturengoak doaz aintzinean, eta hauek markatzen dute pausoa. Erran beharra dago, herri bakoitzak bere pauso berezia duela.

Asteartean, Iturengoak Aurtizera eta hemengo buelta egin ondoren, salda hartu eta Zubietara joaten dira. Zubietakoak bidera ateratzen dira eta heuren gibeletik, zubitik barrena herrian sartu. Herriko gira egin ondoren, joaldunei piper-opilak ematen zaizkie eta herriko etxean salda. Ondoren itzultzeko.

Asteazken eguna, lehen adintuen eguna zen. Ezkonduak eta juntatzen ziren. Orain, Ihauteriak egiten ari direnak bakarrik biltzen dira. Eta hurrengo larunbata izaten da egun haren ordaina bezala. Larunbata hau, herritarra bihurtzen ari da, urtetik urtera jende gehiago biltzen baita. 200dik gora. Egun honetan bazkari espeziala egiten da eta bertsolariak eta guzti aritzen dira. Bazkal ondoren, kontuak egiteko ordua izaten da. Gauez berriro besta eta goizaldera ematen zaio bukaera Ihauteriei.

Antolaketa

Neurri handi batean gazteen artean solasten da. Batzuk aretzea bilatuz, besteak erosketak eginez, soinujotzailerekin mintzatuz... pizkanaka gauzak lotuz joaten dira.

Sukaldariak orain artean bederen emakumezkoak izan dira. Bi lagun azken urte hauetan eta sukaldeko martxa neurri handi batean heuren gain eramaten dute. Lan hori egiteagaik ordainduak izaten dira. Dena den , mahaiak paratzen, mandatuak egiten, serbitzen eta fregatzen jende anitzek parte hartzen du, neskak bezala mutilak ere aritzen dira.

Orain dela urte gutxi arte neskak bakarrik aritzen ziren serbitzen eta fregatzen. Gaur egun, aspektu honetan aldaketa handia nabaritu da, mutilak ere hasi bait dira lan horiek egiten. Hain zuzen ere , neskek mutilek bezala parte hartzen dute Ihauterietan. Hau da, berdin berdin ordaintzen dutela kontuak egiteko orduan eta horrek nolabaiteko berdintasunera bultzatzen ditu. Zenbait lan denen artean egitea, ondorio bat besterik ez da.

Ezkonduen artean, pizkanaka andreak ere agertzen hasi dira.

Haurrak ere, goiko alde honetara etortzen dira. Garai batean ez zitzaien uzten berriz. Begira egoten dira eta soinua hasten delarik dantzan.

Adintuak berriz, karrikan edo plaza aldean biltzen dira, gehien bat soinua hasita gero.

Ihauteriak egitea zera suposatzen du, herriko etxeko martxa horretan sartua egotea. Eta hau herritarrek egiten duten gauza da.

Kanpoko jendeak normalean ez du hori egiteko aukerarik, bederen ez bada herritarren batekin sartzen.

Kontuak egiteko orduan, lagun batzuk bildu eta alde guzietako fakturak biltzen dituzte. Lehenagotik, etxez etxe diru laguntza eske ibili direnak izan dira, baita larunbateko bazkari herritar horretan zeudenei borondatea eskatu. Ondoren, batuketak eta beste hainbati operazio egin eta Ihauteak egin dituztenen artean zatitzen da eta banan bana jende hori ordaintzera pasatzen da.



Joaldunak

Betidanik, Joaldun "ofizialak" gizonezkoak izan dira. Hala ere, orain dela urte batzutatik honat emakumezkoak ere aritu izan dira. Beti gauez, gauez baino hobeki erran da, goizaldera. Joariak paratzeko gizonezkoen laguntzarekin kontatuz. Larruak, joariak paratu eta pausoa hartzen aritu, hor ostatu gain horretan. Behin lotsak kenduz gero kalera ateratzeko eta herriri buelta emateko.

Iaz, igande arratsean atera ziren sei emakumezko jendea oraindik arkupean dantzan ari zenean, ostatuak beteak zeudenean. Eta, benetako joaldunei bezalako arrera egin zitzaien. Ongi hartu zuen herriak. Eta erauntsi handi-handinean agertu ziren arren, jendea arkupetik eta ostatutik atera eta euritakoek zabaldu ondoren begira egon zen.

Emakumezko hauei, hauxe burutik pasa zitzaien heldu den urtean joaldunekin ateratzeko ausardia izan beharko zutela. Joaldunez bestituak hain zuzen.

Aurten, larunbata, igandea eta astelehena pasatu ondoren, iazko ideia hori berriz ere burutara. "Egin beharko genduke" Erran eta ikusi ondoren beste joaldunek ontzat hartzen zutela, handik eta hemendik gonak, ttuntturruak, joariak eta bildu eta hor agertzen dira lau emakumezko joaldun, beste guztien artean. Asteartea zen, Zubieta joateko eguna. Zubietara? Zergatik ez? Inork ez zuen deus ere erraten. Emakumezko horien burutan berriz: "Gauza izanen ote gara buelta hori egiteko? Haurrak ere egiten badute gu ez ote gara kapazak izanen ? Ez ta ai! bat ere, gustokoa dugun gogo hau bete. Gero gerokoak. Ihautea eroa omen zen eta aintzinera!

Inora begiratu gabe, joaldunen munduan sartu, beno begiratu? Aintzinan doan joaldunaren pausoari heldu eta eutsiz. "Joariak jotzen ote ditut?" Joaldun berri guztien bildur bera. Behin galdemodu horretaz atzenduz gero, bat galdu egiten da bram-bram horren barruan eta Mendaurren gonen azpian.

Ihauteriak... indar berritzen ari ote?

Emakumezko joaldunak?

Zer da joaldun izatea? Joaldun, joariak jotzen dituena da.

A.Z.

Zubieta

XX mende altura honetan ez gara hasiko -telebisio eta direla jendeak nola jazten den esaten, edo zein tipotako joaldunak diren zubietarrak. Onenak! Urte batzuk direla (1970) aritzen zen hemendik Caro Baroja eta horrek idatzitakoak hortxe dira: "Una fiesta de buena vecindad", SOBRE LA RELIGION ANTIGUA Y EL CALENDARIO DEL PUEBLO VASCO liburuan.

1970etik 1987ra ez dira gauza asko aldatu, kanbitu, eta gutxi gora behera ohiturak mantendu dira. Hara nola ikusi dituen zubietar batek aurtengoak:

INOTIK-IHAUTERIAK

Urtero bezala Zubietan inotik ospatu ditugu, lehendabizikoak hain zuzen, eta martxa, martxa, martxa...

Nahiz eta orain urtarrilaren azkenenko igandean izan, aipatu nahi nuke, ohitura, San Anton egunean ermitan meza entzun ondoren itundarrekin eguna erabakitzea zela.

Normalki bi edo hiru egun aurretik preparaketak hasten dira, beti presaka, hau istilua; derrigorrez eraketa laster egiten da, elkartu, solastu, amorratu eta nork berak ahaleginak eginaz noski!! Garai batetik honantz lehendabizi txabola txukun bat egiten da, bertan adinekoak pentsio gisa, lau egunak parrandan igarotzen dituzte; txabola honen ezaugarriak: ohizko baserrin itxura, piperopilak, artopilak eta bertan erretzen den taloa, gazta, txistorra edo txingarrekin dira. Berehala itzulipurdika karrozaren bat eraikitzen saiatzen gara, ganbarako kutxa zaharreko osagaiekin, burni, adar, egur, arropa eta abarrekin, gure ganbarak kokotaraino beterik egoten dira, ez dakit antikuarien gisa erlikiak gorde nahirik edo hiriko trastero izenekoen gisa, hala ere norbaiten (edonoren) irudimen argitsuekin mota askoko aukera azaltzen dira, baina astia!! Zer edo zer hasi, ... apainketak, mailukadak buila gehien, gorabeherak, zalantzak, akatsak eta ondorioa...Alde batetik, ardi borda, artzai, ardi, iratze, eta bildotx, Indiar kultur errepresentazioa, bi metroko aker adardun dotorea bere umetxoarekin. Hara nondik ikuslei agertzen zaien, heuren usaimena zorrotza neurtzeko aukera (disimulatu ezineko usai botatzen bait zuen) giroa kutsaturik utzi zuen, niretzat behintzat; eta nola ez ba... ttorrotta erranta botatzailea, palasta hemendik, palasta handik. Beldur naiz denak dakigun horrek betirako atsedena oraindik ezin hartu duen... larra, zer? eta mozorroak, izkin guzitik bueltaka, nork berak bere irudimenen arabera, dardarka, garrasika, zakarkerin, tresnak arrastan, hantza duenez arbasoen izakera eta sinesmenari lotuta daude batez ere, indar madarikatuen ikareria.

Era berean joaldunak, arrakasta berezia dute eta inoteri ospe handia eman diete ikasleek gureganatuz herri txikia izan arren.

Gazteria herriko etxean elkartzen da ez dute bat galtzen, lau egunak algara batean, krisisa? bai to! aipatutako "pentsion" gisa, janariak, edariak, bihurkeriak eta abar, akordeolariakin herri guzia barre zantzo, trinko-trinko... salto hemen... salto han.
Urtero bezala...Pilartxorena... salto hau.

Aurretik bai, hirurogeitamarrerako (70) ongi kanbituak ziren zeren, lehen, iñotik gazteen asuntua zen, gazteak ziren, iñotitan, herriko nagusiak... a zer nagusiak gainera!

Gerra ondoan izan zuten iñotik momentu larriena. Franco, guardiazibilak eta apezak aurka edo kontra zirela. Batean mozorrotzea galerazi, hurrengoan San Antonen guardiazibilak agertu eta joariak kendu, multa jarririk. Edozein jai egiteko permisua, baimena eskatu behar zela, azkenean baten bateri burutu zitzaion egunak aldatzea eta iñotik izen gabeko iñotiak egin ziren. Geroztik, "fiestas de invierno" delako horiek ospatzen ditugu;iñotik. Adinekoek esaten dutenez joari basatiak izan ziren aurkatasun handiena jasan izan zutenak. Soinua onartzen zen, joariak ez.

Joari basatiak esan dugu zeren lehen, ez zen pausoa ematen, lasterka, zalapartaka aritzen omen ziren. Herri bakoitzean joare pare bi edo hiru zeudela diote, baina nahikoak herri osoa ikaratzeko, emakumeak eta haurrak batez ere. Eta hau horrela izan zen Lazarok Ittundik pausoa ekarri arte, zeren, normala den bezala, zibilizazioa behetik gora heldu da gehienetan. Aldaketa handia! Iñotiri aurpegia garbitzeko manera! Ondotik etorri ziren apaingarriak, ttunttunruak eta puntilak.

Esan dugu lehen gazteak zirela nagusi. Hara nola:
Hasteko, behin adina bete ezkero mutil guziak "Gazteetan" sartu behar ziren. Egoten ziren, noski, sartu nahi ez zutenak, separatistak" gaizki ikusiak izaten ziren.

Sartzeko baldintza bat bete behar zen, kondizio bat, kontsejuko mahai gainean dantza egin behar, besteen aurrean, gazteetako bat lagun edo etsaia zuela. Sasoiez erakutsi behar zenbat eta salto handiagoak, hobe. Bukatzeko ere, mahaitik salto handi batez jautsi behar. Horrelakorik egin nahi ez zutenak, bi litro ardo pagatu behar zuten.

Gazteetan sartuta bete behar ziren lege asko edo kastigatuak izaten ziren. Mutilek bazuten kastigu bat. Iñoti arratsalde batean ez baziren bezperatara etortzen -arrasorioara"- mozorroz jantzi egin behar zuten, bere joariakin, eta eskola atarira, presentatzera, joan, edo hamar sos pagatu behar.

Iñotitan, arditara joateko ere baimena eskatu behar zuten multarik gabe libratzeko, eta gero gainera beste gauza, koadrila guzikoak elkarrekin zortziko dantzan, eta jotan, aditu behar ziren eta aritzen ez ba zen bat, litro bat ardo zigorra bezala.

Mendiak zirenak ere, etortzeko obligazio gisa zuten eta etortzerik ez bazuten, bi pezeta bidali behar zuten beste batekin eta bi urtez hutseginez gero, fuera!

Hau dena esaten zigunari galdetu genion:

- Zer ziren, onak edo txarrak gauza horiek?
- Onak izanen baziren ez zuten utziko, eta utziak dira!

Gazteetatik aparte ez zen deus. Den dena beuren baimenetik pasatzen zen. Iñotetan, mozorrotu egin behar bazen gazteren bat, oraindik sartzekoa zela , baimena eskatu eta bost sos ordaindu behar zuten -gero ematen zieten baso bat ardo edo ....- Hala eta guztiz ez ziren beti ongi libratzen zeren, Iñotitan, "a hostia limpia" aritzen ziren. Haur eta emakumeak balkoietatik ikusi behar zuten dena eta etxera joateko izkutuan ibili behar... gazteek harrapatu ezkero, fuego, jotake.

- Behin suge batekin urratu ziguten -esaten zigun kontatzen zigunak-. Gazteetan sartzekorik ginela, pagatu baimena eta mozorrotu eta hala eta guziz, batzuk harrapatu eta borda baten bilatutako suge batez urratu ziguten.

Emakume bateri galdetu genion:
- Ez zineten ateratzen?
- Ateri? -erantzun zigun- Betixu haien artakan? Urratuko ziguten!

Komo kanbian los tiempos
Don Martzelino
las txikas en las taskas
bebiendo bino, ay, ay. ay. bebiendo bino!

Ez ziren ez, emakumeak ateratzen. Lehiora edo balkoira eta kitto. Dantzara ere, segun eta nola. Sokadantzan bai, painueloetatik hartuz, zortzikoan ez. Zortzikoan nahiko berandu hasi omen ziren eta, esaten dutenez, ijito batek, Zubietan bizi den ijitua, bultzaturik. Beste batzuek esaten dute, berriz, emakumeak galtzak jazten hasi zirenean zortzikoan hasi zirela Zubietan.

Dena dela, zerako zera hori izandu du beti Zubietako iñotiak, batzuek astakeria deitzen dutena, besteek, amoroski zerako zera. Ondarreko eguna omen zen haundiena, explosiokua. Bere tenorian egiten zenean errauts egun bezperan egiten zen eta orduan izaten zen larra karruka ekartzea, sua ematea eta herri guztia errautsez betetzea, apezei aintzina harturik.

Eta 1987ko urtekoak?

Nola aldatzen diren gauzak,
nola aldatzen diren gauzak,
nola aldatzen diren gauzak
KAMARADA

Hilabete bi pasa direla, gaur dugu balantze egiteko eguna: joaldun urruxena (amore guziakin esanda). Zubietatik begiratzen dugu, dudarik gabe! Hura izan zen sorpresa! Balantzea bi pusketan eginen dugu, bata eta bia, ondorio onak eta susmo txarrak.

1.- Ondorio onak

Ez da gaurkoa atso batzuen gogoa, joera, joariak jotzeko zera hori. Baita aritu ere, Iturengo eta Zubietako gau batzuek kolunkatzen. Nola pentsa, horrela egin!

Zubietan ez dirudi egunaz kaleratzeko gogoarekin geratzen direnik, nonbait hori attunentzat uzten dutelako lasai, baina Ittunan bai. Batzuek bazuten gogoa. Gogoa jotzeko eta eskubidea hori erabiltzeko. Ezagunak eta askotan hutsak

diren hitz horietako batekin esateko, feministak? Jesus Maria eta Jose! Hemen ere? Bai ba.

Egin dute. Bidea ireki dute. Zorionak tradizioa mantentzeko izan dezakeen laguntza horregatik!

Egon zen norbait tradizioa puskatzea zela esaten zuena, baina tronpatu dela espero dugu. Benetan, hala espero!

2.- Susmo txarrak.

Ituren eta Zubieta / Zubieta eta Ituren.

Badakizue nola izaten den, ez? Nolakoa lagun eta etsaia. Hortaz, ez dakigu noiz baino ohitura sortu zuten. Eta mantendu nahi. Hori bai, urte batean ez dakit zer, hurrengoan badakit zer.

Total, batek baino gehiagok pentsatu zuela hura gusto txarreko broma izan zela.

Nola ez? Ordu terdi espero eduki behar da jendaira! Arrazu pare hortan. Eta ez esperuan eduki bakarrik. Gero, inork deus jakin gabe, zas! lau joare haundiko joaldunak ote dira han urruti datoztenak? Eta hemengoak, bi joare eta bi pulunpakoak denak! Ai ama!

Ez da, ez, joare edo pulunpa eztabaida, aurrekoa edo behekoa, nola elkartasun giro hori mejotu baizik.

Hortaz, susmo txarra ekarri zuen itxoin beharrak, eta susmo txarra ere asteartean joaldun berriak agertzea.

Astelehenean zergatik ez? Bizia hola omen da, noiz gogotu, orduan egin! Ailegatuko da bai, heldu den urteko iñoti astelehena, urrux joaldunez betea, zeren espero dugu, kortesiagatik besterik ez bada errefuertzo berria hori han izanen dela. Ez baita normala han asmatutakoa, lehendabizi ondokoari proba eragin, ez da normala!
Zubietarrak, ikusiko dugu zer egin! Nola Pakiton propuestak lurperatu: ez txarrenak ezta Huartetarrak.

Gora iñotik eta joaldunak! Eta herriarteko beti zalantzan dugun elkartasun giroa!

Por zierto! Ez dakigu noren errua den Hemen-go txorrada hura, Zubieta eta Iturenen arteko ezin ikusia dagoela esate hura zeren, Zubietan bederen, denak bi begikoak bait gara, politagoak edo itsuagoak baina bi begikoak denak. Tartamutuak edo gorrak baliteke, itsuarik ez! Begi zorrotzak gainera! Hortaz, Ittundarrak beti begi bistan!.

ihauteriak

Goizueta

Ziur ez dakigu gure aurrekoak nola hasi ziren Iñauteak ospatzen....

Udaberri aurreko egun hauetan, gure larru eta barrenak, izadi osoa betetzen duen indar berri bat sumatzen du. Indar honek, gure mendi, erreka, zugaitz, azinda, baserri eta herri guzia, elur-amets-luze eta gaba illuneko lotatik, esnatzen ditu...

Horregatik, astelehen goizalde hotz geldian, korneta, irrintzi eta kordionaren oihartzuna, ohe epelera ailegatzen da: "Altxa, motel"; zuri-gorriz jantzi; zapela, zinta-kolorez apaindu; burduntzia eta korneta hartu, eta "malda-goiti" goazen "baserriz-baserri" dantza eta doinuaren alaitasuna zabaltzera! Zerripuskaz eta arrautzaz saski bete, eta mendigain eta erreka zokoko mozorro guziei konbidatu, astearte arratsaldean, elkarrekin, "izadi berritze hau" herriko plazan ospatzera: "gure zahia dantzatera!"

Orain dela 50 urte, "Iñautek" aldaketa nabari bat izan zuten Goizuetan. Kandida Lujanbio zenari, Bittor Iribarren eta Balentin Makatzagari esker, jakin dut "garai hartan" nola egiten zituzten.

Egitaraua ez da gehiegi aldatu; baina, bai "zahi-dantzan" partaide ziren mozorro batzuen jantziera.

Astearte arratsaldean, "sei mozorro" ateratzen ziren heuren makilekin; beste "bi" eskean, eta "zahia".

Gaur egun, sei mozorro horiek "gizonez" jantziak ikusten ditugu... Lehen, berriz, hiru mutil "galtzadunak", eta beste hiruak "gonagoruntz" jantziak agertzen ziren. "Gizonezkoak", galtzazuri ordez, "prakak" edo "kantzontzillo" luzeak ere erabiltzen zituzten, batzutan. Beste hiruak, berriz, eskarpin zuriak lokarri-gorriz; zurmiorainoko gona luzeak, "farfailuz" edo puntillaz apainduak belaunpeko bi lerrotan eta beheko ertzean. Gerrikoz, zinta gorria saitsetik korapilatua; eta soinean, "txanbra" edo brusa zuri mauke-luze, eskumuturretan "farfailuz" apaindua. Zapi gorria lepoan, eta buruan, zapela paper dirdairuz josia. Bi "puska-biltzaileak", zapela ordez "tunturru-zuriz" nabaritzen ziren.

"Zahia", berriz, gaurko gisan: ikazkinen aurpegi beltza, buzo zabala belarrez betea, abarkak, zahia bizkarrean ongi lotua, eta atzetik, zintzilik joarea. "Musika", txistu eta danbolina.

Beste "ohitura" batzuen artean, aipagarri da, noski, "astearteko jaki berexia": zerriaren "xangobelarri", gazitan jasoak, saltsa goxoan maneatuak...

Hau da, Goizuetako Iñauteriaz nik jaso dudana. Beste zerbait dakienak , adieraz dezala.

Joxe-Xabier Etxeberria



Hiru Goizuetar xomorro iñotetan.

GOIZUETAKO IÑOTEAK

Kaixo! Ni Susana naiz eta gure herriko iñotei buruz hitzegitera etorri naiz.

Nire herriko iñotek arrunt politak dira,; denak mozorrotu egiten gara era askotara. Guri gehien gustatzen zaiguna zagi dantza da. Honek zera adierazten du: gizon bat menditik etorri dela, ikazkintza lanetatik. Aurpegi guztia beltzez eginda dauka mehategitan lan egiten duelako. Herrira ailegatu eta hemen mozkortu egiten da. Orduan hemengo jendeak zagi bat patzen dio bizkarrean eta hau neska guztien atzetik ibiltzen da aurpegia beltzatu nahiean.

Urte askotan egin izandu da gauza bera eta nik uste dut horrela segituko duela.

Nire herrian ere mozorroak baserriz-baserri ibiltzen dira dantzan eta goizean pixka bat edanak etortzen dira.

Hemen den gauzik politena guk ematen dugun giroa da, eta gure hurrengoak ere hala egin beharko lukete.

Susana Tato Zabaleta.
7. maila Goizuetako Eskolan.

Lesaka

Lesakako inauterietaz galdetzen badiozu Lesakar bateri, ziur nago berehala erantzungo duela gauzik ikusgarriena zakozahar dela.

Zer da hau?, Nondik dator? E.a., ba hori zailagoa da, oraindik ez da inor horri erantzun dionik, eta baldin bada, ba jakin nahi nuke nondik sortu zen.

Dena den lehen ateratzen omen ziren, gero gerra garaian debekatu omen zituzten baina berriro berreskuratu ziren eta aurrera jarraitzen dute gero eta indar gehiagorekin.

Aurten ere 24 gizaseme atera dira eta beharbada datorren urtean gehiago, zeren jende pila bat gelditu da ateratzeko gogoakin. Gainbegirada bat eman ondoren honi buruz, erran dezakegu hauek zakoz jazten direla barrenean belarra eramatean dutelarik, beraz ez dute hotzik pasatzen, gero herrian zehar ibiltzen dira soinuaren ritmoan.

Gero plazan bukatzen dute haurrek zako eta belarrak kentzen dizkiotelarik, hori izaten da azkeneko tokea, barra bati heltzen diote lurrera ez erortzeko eta hortxe jo ta ke haurrek belarra kendu eta zabaltzen.

Eskutan, lehen ahantzi naiz, zerri pizontzi bat daramate inguruko jendeari arroaldi bat emateko, behar bada bat baino gehiagok gaizki hartuko du baina nork daki, barrengo erretasuna kentzen ez dutenik horrela.

Beno hori da zako-zaharrak eskeintzen duten giroa.

Beste egunekin jarraituz, herrian zehar karrozak ateratzen dira eta aipatuko dugu ugaritzen ari direla urtetik urtera karroza ateratze horiek.

Gero baserrietan zehar ibiltzen diren taldeak ere ez ditugu ahantziko, zeren hauek ere ihauterietan parte hartzen dute, bertze era batetan.

Hauek hiru taldetan banatzen dira:

-Fraindarrak (Frain, Izotzaldea)
-Goitarrak (San Anton)
-Nabaztarrak (Nabaz)

Eskean ibiltzeko ohitura dute hauek eta bere akordeoi, trikitixa eta abarrekin hortxe ibiltzen dira erratzaren aurretik eta ez badituzte betetzen jarritako baldintzak erratzaren pasada bat hartuko dute nahi badute edo ez. Dena den herri bakoitzak ohitura zaharrak jarraitzen saiatzen da eta hemen batez ere, zeren nabarmentzen dira giro desberdinak, alde batetik karrozak eta bertze aldetik betidanik egin diren ekintzak (baserritarrenak).

Etxalar

Denborak aldatuz doaz eta beraiekin aldatzen dira ere, herritarren bizimoduak, ohiturak.... iñautiak.

Gaur egun Etxalarren ezagutzen ditugun iñautiak deus gutti dute antzeko, orain dela hirurogei urte ospatzen zituztenekin. "Carnaval en Navarra" liburuan, Nafarroako inauterien bereiztasunak azaltzen dira eta, horra zer dion Etxalarren ospatzeiˈzirenetaz.

Bertze herrietan bezala, Etxalarko iñautiak ere, pertsonai berezi bat bazuten, moruak. Herriko gazteak, (mutilak bakarrik), ziren pertsonai honeri bizia ematen ziotenak. Aurpegia pintatuaz edo trapu batekin gordeaz eta makila bat zerri pixakiakin edo isatsa batez baliatuz biltzen ziren herriko plazan arratsaldean.

Erran behar, iñautiak aintzinako igandean hasten zirela. Igande horretan, bertze igande guztietan bezala, arratsalde apalean, Herriko bandarekin dantzaldia izaten zen herriko plazan. Igande horretan jadanik, agertzen ziren moruak dantzaldira, handik zebiltzan haurrak zirikatzera, pixakiakin joz. Haurrek berriz, "moro moro tirititoro adar okerra..." ohiukatuz zirikatzen zieten.

Dantzaldiak beti, ilun ezkilak jo arte irauten zuten, eta orduan, neskek etxeratzen ziren eta gainontzekoak, gazteak eta moruak, afaltzera joaten ziren ostatu batetara. Afalondoan dantzaldia izaten zen berriro.

Ortzegun-gizen egunak berriz, ez du ia inolako aldaketarik ezagutu. Seguraski, eskean ibiltzen ziren haurrak, gehien bat baserrietan ibiliko ziren eta ez bakarrik karrikan.

Igandea edo zaldun-iñauti egunean, ohitura zen bezala dantzaldia izaten zen herriko plazan. Lau mutilen artean eta ardo garrafoi pare batekin, han ibiltzen ziren bueltaka ardoa eskeiniz jendeari. Astelehenean berriz, orain bezala, eskean ibiltzeko eguna zen. Goizean, iñauteritako koadrila, baserrietan barna ibiltzeko prestatzen zen eta beraiekin honako bandera hau eramaten zuten "viva la juventud y unión echalartarra".



Baserrietara esku-dantza arin bat dantzatuz hurbiltzen ziren, ate ondoan "iñauti-iñauti zingar arraultze bat ez bada bertze" kantatuz eta jota pare bat dantzatuz.

Arratsaldeko hiruak aldera herrirako bidea hartzen zuten, ostatuan bazkaltzeko. Arratsaldez eta gauez, dantzaldia ilun ezkilak jo arte eta ondotik afaria.

Astearte iñauti egunean karrikan bakarrik ibiltzen ziren eskean. Bederatziak aldera, gazte kuadrilak ostatuan biltzen ziren, bakoitza nahi zuen bezala mozorratua. Egun horretan, moruak, ezpelaz apaindutako karroza batekin ibiltzen ziren karrikan. Karroza behi pare batek eramaten zuten eta gainean akordeoilaria eta damalaiak joaten ziren. Damalaiak, neska mutilaz osatutako bikotea ziren, eta urtero dantzari hoberenen artean hautatzen zituzten. Herriko lau auzoetan barna ibiltzen ziren eta auzo bakoitzean gelditu eta damalaiak jota bat dantzatzen zuten. Eguerdian bazkaria eta gero aintzinako egunetan bezala besta berandu arte.

Baina iñautiak ez ziren asteartean bukatzen. Asteazkenean edo hauts egunean ematen zaien bukaera. Goizean mezara joan, hautsa hartu eta sekulako bazkaria egin ondoren, urteko bestak antolatzeko mayordomoak hautatzen zituzten. Hauek izanen zire,urte batez, bestak antolatzeko arduradunak.

Hasieran erran dugun bezala, gaur egungo iñautiak ez dira orain dela hirurogei urtekoak bezalakoak. Hala ere, urtetik urtera indarberritzen ari dira. Orain etxalartarren eskutan dago pertsonai hau berreskuratzea.

Arantza

ARANTZAKO INAUTEAK: LEHEN, ORAIN ETA....

Inauteen esanahi eta edukiari buruz hainbat idatzi izan ohi da eta, noski ez edonork. Ni ez nator hona bere jatorriari buruz filosofatzera, ni baino trebeagoak behar hainbat gauza azaldu izan bait dituzte nahiz eta mila xehetasunetan ados ez jarri. Ez! Lantxo honekin, Arantzan, iragan hurbilean nola ospatu ohi ziren agertu nahi nuke - izan ere gazteok ezer gutti baitakigu horri buruz- eta orain egiten direnekin nolabait konparatuz, bien alde onak hartu eta etorkizunean gure inauteak hobetu ahal izateko, beti ere, noski, herriko nortasuna eta kutsua mantenduz.

Ez dakit ahalegin honetan asmatuko dudan, izan ere, aunitzetan gerta ohi da buruak idei bat adierazi nahi izan arren eskuetan barna pasatu eta orri zurian tintaz koloreztatzean zerbait bertzelakoa ateratzea, eta baita, irakurleak letra zopa hori leitu eta hausnartzerakoan jatorrizko zentzua aldatzea, eritzi soil bati kritika zentzua hartuaz.

Izan ere, nik hemen agertu nahi dudana eritzi bat besterik ez baita, ez ezeren edo inorenganako kritika. Eta honen bidez zera lortu nahi nuke; beste hainbat herritarrek inautei buruz dituzten eritzi desberdinak azaldu arazi eta eztabaida sortzea, horren bidez inaute hobeak lortuko ditugulakoan, besta egiterakoan, bederen, jendearen partaidetza posible delakoan.

Eta gaiaren mamira sarturik, gerra aurrean nolatsu egin ohi ziren azaltzen hasiko naiz, pentsakeraz, indar eta kemenaz gazte egon arren

urteetan gora joana den gizon jator batek kontatu didanaren arabera. Gerra izana baita inauteentzako langa nabaria, izan ere, gerra ostean inauteak ez egiteaz gainera, berriro ospatzen hasterakoan kutsua galdu baitzuten kasu aunitzetan, Arantza delarik lekuko adierazgarria.

Bi egunetan ospatu bide ziren inauteak iraganean, austerri aurreko astelehena eta asteartean egun bakoitzak izen berezia ere bazuelarik: "Inaute eguna" lehenak eta "Inaute motx" besteak.

Dena dela, hasi aintzinatik alkateari baimena eskatu behar izaten omen zioten eta honek ematen zituen ordenak zuzen bete ere bai, nonbait orain baino errespeto gehiago baitzioten herriko agintariari.

Astelehenean lehen orduan elkartzen ziren gazte multzoa herrian "mozorro zuriak" deituriko taldea osaturik. Talde honek osatuko zuen nolabait inauteen muina, hauek ibiltzen baitziren baserrietan barna eskean eta beraien ardura zen soinulariak ordaintzea eta abar... Talde honetan parte hartzeko arau bat bakarrik bete behar zen derrigorrez dantzatzen ongi jakin eta dantzatu nahiz eta usadioz edo, emakumezkoak eta ezkonduak kanpo geratzen ziren mutiltzarrekin batera, titulu honen "jabetza" lortzeko adina norberaren esku zegolarik.

"Mozorro zuriz" jantzi behar zutenak herrian elkartu, traguskaren bat hartu eta baserrietara irten aurretik bi taldeetan banatuko ziren, bakoitzak herriko bi egiteko, hots: Aientsa eta Azkilarrea batak eta Eguzkialdea eta Bordalarrea besteak. Ondoren ados jarriko ziren, Meakan, herrira iritsi baino lehentxiago dagoen soro batean elkartzeko ordua erabakitzerakoan eta atera talde biak baserritarantz, soinulari, akordeolari, atabalero eta txistulariekin.

Egun honetan, inaute egunean, norbera berekasa jazten zen, "Mozorrek" ez zuten jazkera berezia eraman beharrik. Baserrietara iritxitakoan, atarian dantzan ibiliko

ziren soinulariak jarritako doinuaren arabera, "zareroa" saski haundi batekin eskesariak biltzen zituena atera hurbildu eta "puska-puska" ohiukatzeari ekiten zion bitartean. Eskesaria gehienetan arraultzak eta urdaia izaten bide ziren eta, inoiz behin, diru apurrenbat ere bai. Zenbait etxetan berriz, beti etxe beretsutan, usadio zaharrari jarraikiz, barrena sartu eta gosaltzera, hamaketakoa edo bazkaltzera ematen zieten orduaren arabera. Horrela ibili ohi ziren etxez-etxe arratsaldeko lehen orduan, Meakan, bi taldeak elkartu arte. Behin han, dantza egiten omen zuten ez denak ziur aski, gaur gertatzen den legez orduan ere baten batzu, burua argi eta gorputzari tinko eusteko gehiegi edaten omen zuten eta. Hiruzpalau dantza mota dantzatu bide zituzten; dantzaluzea, aurrezkua, eskudantza etab... herrira itzuli aintzinatik.

Herrira itzulitakoan, bildutako guzia herriko etxean kokaturiko ostatuan utziko zuten, ostalariak ondorengo otorduak prestatu ahal izateko eta, iluna baino lehen musika soinua hasiko zen plazan, baserrietatik bildutako jendeak dantzatu eta jostatu ahal izateko.

Orduan, eguna eta gaua elkarrekin gurutzatzen diren unean, ilunabarrean inauteetako bertze osagarria agertzen zen: "Mozorro beltzak".



Hauek maskaraz, arropa zahar eta abarrez estalirik izaten zuten gorputza dena, ezagutuak ez izateko. Izugarrizko ohitura omen zen mozorrotzeko eta era guzietakoak ateratzen bide ziren: Animali itxurakoak, tramankulu luze batzuz baliaturik erraldoi beldurgarriak, zeinak, lehioetara hurbildu eta aiztur luze batzurekin tresnak atera, lepoa mozteko zeinua egin etabarrez irri eragin arazten zuten.

"Mozorro beltzak" ilunarekin batera ateratzen ziren batez ere, baina egunaz ere bai inoiz, eskean zebiltzan umeei eskesaria kentzeko. Haurrak, mozorro beltzak ikusiz gero,laisterrari ekin behar zioten, bestela ezer gabe geratuko baitziren baina etxe baten atarira ailegatuz gero salbo zeuden mozorroak ez baitziren hara joaten.

Honela, hemen ere beste aunitz lekutako inauteetan bezala bi figura agertzen dira. Alde batetik "Mozorro zuriak", aurpegia agerian, apain eta txukun jantzirik onaren papera ordezkatzen duena. Bestetik, "Mozorro beltza" txarra, gaiztoaren figura, haurrak jo eta ebaska. Horregátik gure garaian, umeak ginenean zerbait egiten bagenuen edo ikaratu nahi bagintuzten, "Mozorro beltza" etorriko zela erran ohi ziguten.

Niri kontu hauek kontatu dizkidanak azaldu zidanez, berak ezagutu ez bazuen ere inaute azken egunean "karroza" bat ateratzen omen zen dena sagu, arratoi, sator etabarrez betea zeinak erre egiten zituzten inauteen bukaeran. Inauteak garai baten amaiera eta bestearen haseran egiten direnez, heriotza eta jaiotza, neguak dakarren heriotza gainditu eta udaberriak ekartzen duen loratzearen arteko kontraposizioa suposatzen duenez, labrantzarako kaltegarritzat zituzten pizti hauek bil eta aro berria garbi hasi nahi zuten. Urte zaharreko okerrak zuzendu behar ziren demonio eta pekatuak aldenduz, eta piztiak ziren erruduntzat hartzen zituztenak, horrela aro berria indarberritu eta garbirik hasi ahal izateko.

Harira itzuliz, inaute eguna ilun eskilarekin bukatzen zen, plazako musika bederen, mozorroak jarraitzen baitzuten herrikoetxean afaldu ondoren ere.

"Inaute motx" egunean, "mozorro zuriak" janzkera bereziarekin aterako ziren goizean lehen orduan. Guk ezagutzerik izan ez dugun traje hori guztiz berezia izaten omen zen, kolore anitz eta egitura berezikoa, berari garrantzi izugarria ematen ziotelarik. Gazteren batek edozer arrazoigatik mozorro uzten zioenean, lagun edo ezagun bati pasatzen omen zion berria egitea aunitz kostatzen zelako. (Erran didatenez baten bat izan behar omen du hor barna eta ez litzateke astakeria izanen berriro eskuratzea.) Gero herrian dauden etxeetan eskean ibiliko ziren, bezperan baserririk baserri ibilitako era berdinean. Arratsaldeko lehen orduan ospatuko zen inauteetako ikuskizunik jendetsu eta ikusgarriena. Laurak aldera bilduko ziren herritar gehienak herriko enparantzan mozorro eta neskek egiten zituzten dantzak ikustera: Dantzaluzea, neska-dantza, ezpata-dantza, esku-dantza etab... Ondoren zahar eta gazte, denak batera ekiten zioten dantzatzeari izan ere, "zareroak" ardo eta ogia debalde -mozorroen kontura- banatzen baitzuten gogoan zuen guziari eta edanak konplejoak aldatzen baititu. "Mozorro beltzak" ere irtengo ziren bezperan bezalaxe, eta ilunezkilak jotzean bukatuko zen soinujoleen plazako zeregina, nahiz eta herrikoetxeko ostatuan,

afaldu eta inauteetako kontuak egin eta ordaindu ondoren luzaroan ihardun behar izaten zuten, izan ere, Austerri egunean eta berrogei egunez Bazko eguna arte ez baitzen igandeetan soinurik izanen herrian eta jendeak probextu nahi izaten omen zuen gau hura ahalik eta ongien.

Lehen aipatu dudan bezala, gerra izan da Inauteentzako oztoporik nagusiena, urte mordoxketan ez baitzen ospatzerin izan. Berriro hasi zirenean, diktaduraren aginduz izena ere aldatu nahi izan zioten, "Fiestas de Primavera" deitu araziz eta mozorrotzea ere debekatuz. Egia erran, denboraren joanean Inaute zentzua galtzen joan da, nolabait bestaren ezaugarri berdintsuez jazten joan delarik.

Orain ez dira Austerri aintzinako asteburuan ospatzen eta, bidezkoa da, ondorengo herri haundiagotan hola ospatzen baitira eta jendeak ez aldegitearren egin ohi dira hamabosten bat egun lehenago.

Egunak ere gehitu ditugu, lau egun ospatzen baititugu, ostegunean hasi eta igandera arte. Zenbait gauzetan usadio zaharrei jarraitzen diogu, baserrietako ibilera era berdintsuan egiten baitugu. Lehen eguna, osteguna, izaten da eginkizun horretarako eta egun hau izaten dugu "Mozorro zuriak" gustokoena, baserriz-baserri nahiko jan, edan, jostatu eta broma eginez egun atsegina pasatzen baitugu. Bigarren egunean herrian ibiltzen gara eskean, iada zuriz jantziak, bezperako era berdintsuan. Larunbata eta igandea ere herrian pasatu ohi ditugu, hara-honatean, dantza eta tragoan. Lau egunetan izaten da soinua herriko plazan, ilunabarrean hasi eta gaua aintzindu artean, eta igandez beste ikuskizunak ere bai; bertsolari, herri-kirolak etab...

Kontu aipagarri gisa, duela laupabost urte eta bi urtez garraian, antzerki antzeko bi saio egin genituen; "Jomeniren etorrera" eta "Zorriak kanpora" izan zuten izenburutzat. Gaiak geronek prestatzen genituen eta edukia herriko pertsonai publikoren batean oinarritzen zen. Ez dakit kritika zorrotzegia egiten genuelako edo herri hau kritika jasotzeko prestaturik ez dagoelako, gaizki bukatu genuen, haserre bizian.

Ene uste apalean, Arantzako inauteriak badute hobetzerik eta hau diodanean batez ere bi gauza azpimarratu nahi nituzke. Jendearen partaidetza urria denaren eritzikoa naiz. "Mozorro zuri" taldean ateratzen garenok bakarrik hartzen dugu parte betebetean eta ez gara multzo haundia izaten. Gainera, hemen ez dugu oraindik lehengo tradiziorik hautsi, izan ere, era zaharrari eutsiz, ez baita ez emakumezkorik ez ezkondurik ateratzen eta komeni litzateke behingoz konplejo tontoak apurtzen joatea. Inauteak aurrerantzean ere ospatzen segitzekotan, gaztedi osoaren partaidetzarekin izan beharko du eta osoa diodanean, neskatx eta mutil, denak erran nahi dut.

Bigarren gauza aipatu nahi nukeena zera litzateke: Inauteen berezko kutsua eskuratzea. Izan ere, Inauteen grazia horretan bait datza, mozorrotzean batez ere, nahiz zuri zein beltzean. Eta alderdi honetan eredutzat lehengo garaiak hartu beharko genituzke, nahiz eta aunitzek diotenaren kontra nik iragana hobea izan dela ez sinistu, izan ere joandako garaik hobeak eta txarrak baino desberdinak besterik ez baitira izan. Bakoitzari berea eman behar zaio ordea, eta mozorrotzeko ohitura, guk ikusteko aukerarik izan ez dugun dantza bereziekiko zaletasuna eta aipaturiko traje hori eskuratzea ez litzateke astakeria.

Hona bada ene eritzia. Inaute atseginak egin daitezkelakoan nago, estomaka jaten guttixiago bortxatu eta irudimena lantzen burua gehixeago nekatzen badugu batez ere.

ASSURA

TOXIKAZIORIK GERTA EZ DADIN,

KONTUZ JANARIAREKIN !!!

DENOK OSASUNAREN ALDE !!!

LAN-ISTRIPUAK NOIZ ARTE?

Tipi-Ttapako aurreko alean, inguru hontako lantoki batzuetako egoera agertzen zen, batez ere enpleguaren aldetik begiratuta.

Ondoren heldu diren lerro hauen bidez, oraindik lana daukagunok, zein egoeretan ari garen lanean, zein arrisku dauden lantegietan, osasun aldetik nola gauden langileok, eta beste abar luze bati buruz, idatzi nahi dut.

Hasteko datu batzu:
1.986. urteko lan-istripuetan hildakoen kopurua hau izango litzake:

Hego Euskadin ofizialki izan diren hildakoak, hauek dira: Estatu mailan 1.592 izan dira, 1.984. urtean (1.417) baino % 12 gehiago eta aldi berean 1.985an (1.510) baino % 5 gehiago.

Datu hauek zabaldu dituen sindikatuak dioenez hildakoen % egiterakoan, kopuru altuena, lan-maila behekoak izango lukete; aldi berean istripu arriskurik handiena daukatenak kontratako enpresetako langileak dira, gehienetan noiz behinkakoak izaten bait dira.

Lehen aipatutako datu horiek kezkatzeko moduko gauza bat adierazten digute, hau da, lanean ari diren langileen kopurua jeisten ari den bitartean, lan-istripuak eta istripu horietan bizia utzi dutenen kopurua igotzen ari dela.

Joera honek, nahiz ulergaitza izan, baditu bere esplikazioak. Alde batetik



enpresarioek lantegietako langile kopurua gutxitzen ari dira, produkzioa berriz mantendu egin nahi dute eta kasu askotan gehitu, erritmoak eta makinen abiadura igoz, honek, istripua izateko arriskua haundiagoa_tzen du. Katean lan egiteak berriz, halako "stresa" eta lana ziztuan egitea sortzen du eta honek ez du inongo segurtasunik lanean sortzen.

Beste aldetik, langileok gure lanpostua erabat zalantzan ikusten dugunez eta batez ere noiz behinkako kontratoak dauzkatenek, askotan bortxaturik egoten dira enpresak erraten duena egitera, ihardunaldi luzeak egiten dituzte eta honek ere arriskua haundiagotzen du.

ZER ULERTZEN DA LAN-ISTRIPUA BEZALA

Argi eduki behar dena zera da, estadistikak egiterakoan, normalean, lan-istripu fisiko batzuk besterik ez direla kontutan hartzen, esate baterako: langile bat gruak azpian arrapatzea edo andamio batetik erortzen denean etabar. Gehienetan ez dira lan-istripu bezela sartzen (kasuren bat salbu) gure lanaren ondorio bezala gertatzen diren eritasunak eta heriotzak; hain zuzen ere, eritasun profesionalak direnak. Adibidez: bihotzeko atakeak, amiantoarekin lan egiteak erakartzen dituen minbiziak etabar.

"Aurrerakuntzaren" izenarekin aurkezten dizkigute teknologi berriak, baina kapitalistek irabazi haundiagoak ateratzeari deitzen diote aurrerakuntza. Ez dute begiratzen, osasun aldetik zein arrisku daukaten makina edo aparailu horiekin lan egiten duten langileek. Adibidez, frogatua dago pantaila elektronikoen erabilera luzeak pertsonen hilean eta ikusmeneak ondorio txarrak sortzen dituela, hileen erortzeak, eta baita emakume haurdunetan fetuaren deformazioak, buruko mina, nekea etabar.

Garbi ikusten dena zera da: teknika berrien asmatzaileak ez dutela kontutan hartzen asmakizun horiek langileen osasunean sor dezakeen ondorio kaltegarriak.

Gehienetan, helburua, ondasun ekonomikoak lortzea da, bestela nola daiteke horrelako "mundu aurreratu" batean langileen osasun-egoera, gero eta okerrago joatea, istripuak edukitzeko arriskuak ugaritzea...

Miloi asko erabiltzen dituztela ikerketa hauetan erraten dute, baina langileen osasuna hobetzen, dirudienez, ez dute gehiegi gastatzen.

Lana katean egiteak, eta erritmo handietan aritzeak desoreka psikikoak sortzen ditu eta normalean ez dira kontutan hartzen lanaren ondorioko eritasun bezala. Orain ez naiz sartuko hau zehaztera, baina garbi dago hau eritasun profesionala bezala hartu beharko litzatekela.

SEGURANTZA ETA OSASUNAREN ALDE BORROKATZEKO ZEIN AHALMEN DAUKATE LANGILEEK?

"Lanean Segurtasuna eta Osasunerako Ordenantzak" bere lehenengo artikuloan hau erraten dute lantegietan, Segurantzarako komiteak sortu beharko dira.



MUERTO. Emeterio Lázaro Riosalido, de 58 años, falleció en accidente laboral el martes cuando al parecer trabajaba en las instalaciones de la empresa «Laminación y Derivados» de Durango.

ESTAFA. Jesús Jimeno, presunto receptor de los 297 millones malversados a la Armada, reconoció ayer que firmó recibos y pagarés en blanco «porque era muy amigo del teniente coronel Calvete.

MALVERSACION. La Audiencia de Vitoria juzgó ayer a un guardia civil por un presunto delito de malversación de fondos públicos por no pagar en gasolineras alavesas el suministro de vehículos oficiales.

CONDENA. LA Audiencia de Bilbao ha condenado a 5 años de prisión a J.M.L. por un delito de robo con violencia en una tienda del Casco Viejo de Bilbao.

HURTO. José Francisco A.D. denunció ayer el hurto de una cartera con 385.000 pesetas y una factura por valor de dos millones de pesetas en Portugalete.

Marratutako berri hori DEIA egunkariaren"Gertakarien" orrietan agertzen zen.
Hildakoa polizia edo enpresariorenbat izan baliz tinta eta paper gehiago erabiliko zuten.

Formalki, lantegietan, komite hauek sortzen dira, baina hauen funtzionapena arras formala izaten da eta langileen parte hartzea oso murritza. Hau ez da langileen aldetik utzikeria dagoelako baizik eta gehienetan, enpresek jartzen dituzten oztopoengatik.

Lantegi handietan, Lesakan adibidez, Segurantza Saileko komiteak eta baita Segurantza-komite Zentrala ere badago. Teorian erakunde hauek langileen osasunetaz eta segurtasunetaz arduratu beharko lukete, baina erakunde horiek nortzuk osatzen dute ikusi ondoren erran daiteke

zeinen alde jokatzen duten batez ere segurtasunagatik enpresaren interesak zalantzan jartzen direnean.

Lesakako Hitzarmen kolektiboak jasotzen duenez hauexek dira aipatutako Segurantza-komite Zentraleko partaideak:

-Lehendakaria..... Lesakako fabrikako zuzendaria.

-Lehendakari-ordea. Lesakako Sozial Arazoetako Zuzendaria.

-Aholkulariak..... Osasun-Serbitzuaren Burua.

-Bokalak..... Dibisio edo Zerbitzu bakoitzeko Batzordearen Zuzendaria eta parte Sozialaren ordezkari bat bakoitzeko.

Ikusten denez, zuzendari gehiegi langileen alde borroka anitz egiteko, beste aldetik langileen ordezkaritza hutsean bihurtzen da, ez bait dauka inongo posibilitaterik heuren aukerak eta proposamenak aurrera eramateko.

Segurantzarako Inbertsio Plan Orokorra ere Enpresak berak egiten du, diru hori anitzetan produkziorako hobekuntzetan gastatzen da. Gero sekulako propaganda egiten dute, horrenbeste miloi gastatu dutela zabalduz.

Hemen, aipatu behar da bait ere "Mediku Zerbitzuak" jokatzen duen papera. Medikuei eta erizainei enpresak ordaintzen die orduan gehienetan (kasuren bat salbu) hauen zerbitzurako egoten dira. Batez ere, helburu garrantzitsuenetariko bat "absentismoa" jeistea da. Horrela agertzen da Bizkaiako Labe Garaietan atera duten liburutxo batean. "Manual del Absentismo" deitzen diote liburu honi eta garbi ikusten denez, txertaketak, urteroko odolaren analisiak etabar, ez dituzte langileen osasuna zaintzeko ideiarekin egiten, baizik eta langileek "baja" guttiago hartzeko.

ZER EGIN, EGOERA HAU IKUSITA, LANGILEEN ESKUBIDEAK ZAINTZEKO.

Kapitalisteen ikuspuntutik, lan-istripua, "derrigorrezko gaitza" bat bezela da, azken finean bere ondasunak ugaritzeko erabiltzen duen logika bat.

Ideia hau, gezurra badirudi ere, langileen artean nahiko zabalduta dago, baina nire ustez "logika" hau inolaz ere ezin dugu onartu, gure biziarekin jokatzen bait dute kapitalistek, heurek aberasteko.

Langileen duintasuna mantentzeko beharrezkoa da erantzun bat ematea, arriskua dagoen lekuetan lan egitea ukatuz, gure lantegietan segurtasuna exigituz. Langile bat lan-istripuan hiltzen denean ez daiteke gelditu erantzun bat eman gabe eta horretan sindikatoek eta langileen erakundeek badute zer eginik.

Pello



Tetanos

Joan zen urtean, Nafarroan, zazpi pertsona tetanosez eritu dira, hauetatik, bi hil dira.

Tetanos eritasuna ematen duen baziloa, ugari hedatua dugu gure inguruan (lurrean, ongarrian, errautsarekin nahasia, burni erdoilduetan, etb.) gainera erresistentzia haundia du bizirik mantentzeko edozein kondiziotan.

Gizakiok, kutsatzen ahal gara, edozein zauritik. Zauriaren tamainak ez du honetan zer ikusirik, izaten ahal da edozein urratu, ohartu gabe duguna.

Kutsatzeko, arrisku gehien dutenak aziendekin landan aritzen direnak dira, ongarriarekin, edo baratzan aritzen direnak, konstrukzioan, mendian. Honek ez du erran nahi bertzeok arriskurik ez dugunik.

Tetanoseri aurre hartzeko era bakarra, indibiduala da, hau da, pertsona bakoitza ongi txertatua egotea.

Haurrari hiru hilabetetan hasten zaio txertu hau (bertze batzuekin batera), paratzen, gero eskola garaian jarraitzen zaie paratzen, oroigarri bezala. Soldaduska egin duten mutilek eta bertan txertua hartu dutenak, ongi txertatuak daude, baina kontutan eduki behar da, tetanosen aurka defentsa hauek mantentzeko, oroigarrizko dosisak hartu behar direla gure bizitzaren zehar.

Nafarroako Gobernuak, tetanosen aurkako kanpainari, hasiera eman dio, txertuak bidaliz (dohainik) herrietako osasun zentru guztietara, beraz, txertatu nahi baldin baduzu edo, ongi txertatua zauden argitu nahi baldin baduzu, joan zaitez, zure herriko erizain edo medikuengana.

Maldaerrekako Osasun Taldea.

drogari buruz zenbait hausnarketa

Maite Errorekin solasean

Aspaldi zen, joan den urteko abuztuan oker ez banago, okasioa aprobetxatuz, Maitekin solasaldi luze bat egiteko aukera izan nuen. Hirugarren urtez, Estatu Batuetan drogaren inguruan dagoen mundu konplexu horri buruz, estudio bat burutzen ari zen, eta oporralditxo bat pasatzera etorria genuen Lesakara.

Ez da lehen aldia arazo honi buruz zerbait argitaratzen dela Ttipi-Ttapan, eta ziur aski ezta azkenekoa izanen ere. Asuntoari lotuz erran behar, kontsumoari dagokionez, drogarik zabalduena gure herrietan alkohola dugula, usadioz, aspalditik onartua eta erabilia gure artean. Gaur egun berriz, nolabait errateko, droga modernoagoak ere presentzia hartu dute. Zenbat aldiz ez dugu entzun, gizonezkoentzat behintzat, sekulan mozkortzen ez dena oso oso arraroa dela. Hori marika edo tipo arraroa izanen da.... hala diote batzuk. Emakumezkoak mozkortzen direnean berriz,... "bertze mundu bat".

Ez dakit baina, bizimodu honekin droga eta gizakia gero eta "elkartuagoak" egonen direla susmatzen dut. Pertsonak dauzkaten/dauzkagun arazoak eta nekeziak bultzatzen diete/digute drogak kontsumitzera, menpekotasunean erori arte. Azken batean, Maitek aipatzen duen bezala, sistema honetan ez bait dago soluziorik.

T.T.- Nola hasi zinen arduratzen arazo honetaz?

M.E.- Udako Euskal Unibertsitatean soziologi atala sortu genuenean, gure gizarteak duen arazo inportante batetaz ohartu ginen; drogak hain zuzen. Drogaren egoera Euskal Herrian. Gure herriaren etorkizuna gazteen eskutan dago, eta gazte hauek, kopuru haundi batean, mundu horretan sartuta daudela. Hori zela medio hasi ginen ezagutzen ze alternatiba dauden asistentzia mailan, moduloak, baserriak, Patriarkako jendea.

Ikertzaileen formaziorako beka bati esker, "formación de investigadores en el extranjero" izenburua daramana hain zuzen, zuzendu nintzen Estatu Batuetara eta Puerto Ricora, han daukaten experientzi sakona ikusirik, espezializazioa egiteko asmotan.

Exdrogatzaileak sortu duten modalitate batetan, "Centros Comunitarios" bezala ezagunak direnetan, jardun dut azken bi urte hauetan. Hauek, zentru erresidenzialak dira eta drogak kontsumitzen diren leku berberan (hirietan) eta baita ere leku urrutietan (mendietan) kokatzen dira. Hori dela eta zenbait aspekto ikertzen egon naiz, hau da, ze drogazaile mota daukaten, nortasuna, klase etnikoa, zenbat urte daramaten drogarekin, klase soziala, maila kulturala, maila ekonomikoa eta ze teknika terapeutiko desberdin erabiltzen duten.... hau da, daramaten sistema asistentzialaren ebaluaketa.

Gero lan asko egin dut ere emakumeekin, beraien problematika aztertzen. Oso modu diferentean jokatzen dute gizonezko drogazaileak eta emakumezkoak. Orokorki gizon guztiak matxistak badira ere, mota hau, oraindik gehiago, eta droga lortzeko ia beti delikuentziara jotzen dute.

Emakumezkoak berriz, oso pasiboak dira eta gehienetan prostituziora jotzen dute behar duten dirua lortzeko. Horrez gain, teknika sanitariotan ez dituzte gogotan hartzen emakumeen problematika berezia eta emakumeek, gizonek bezala bere behar konkretuak dituztela.

T.T.- Zer ulertzen duzu drogaz hitzegiten duzunean?

M.E.- Batzuentzat, drogak dira ilegalitate baten bidez lortzen dituzun produktoak, eta legearen barnean lortzen dituzunak (errezetarekin adibidez) ez dira drogak.

OMSek dioenez, drogak dira zure gorputzean sartu ondoren, aldaketa batzuk sorrerazten duten substantziak, alkohola, tabakoa, heroina, medikamentuak...

T.T.- Jakina da interes asko daudela arazo honen atzetik eta interes ekonomikoak eta politikoak nahasita daudela ezta?

M.E.- Bai, Estatu Batuetan adibidez, kalkulatua da bakarrik %10 harrapatzen dutela. Hemen berriz oso gutti harrapatzen dute, eta horrek erran nahi du, asko sartzen dela.

Guztiz adierazgarriak dira adibidez, Puerto Ricoko eta Euskal Herriko egoerak, interes politikoak, zapalkuntza nazionala eta guzti honen gainetik interes ekonomikoak daude. Puerto Ricon hemen bezala, burruka armatuaz baliatzen dira. Hona exenplú bat: Colombian koka kilo bat 3.500 dolar kostatzen da. Estatu Batuetan berriz, kilo horrekin 8 egiten dituzte eta kilo bakoitza 60.000 dolarretan saltzen dute, hau da, 7.800.000 pzta. Erorketak oso arraroak dira eta normalean bi banden arteko borrokaren ondorioz (elkar salaketa) gertatzen dira. Hemen berriz badirudi banda baten esku dagoela guztia eta horregatik ez da egoten erorketarik.

T.T.- Euskal Herrira pasatuz, nola ikusten duzu arazo hau?

M.E.- Alkohola da drogarik eratuena Euskal Herrian; egunero hartzen dutenak, aste buruetan, alkoholiko susmagarriak, gero porroak, anfetaminak, aluzinojenoak, heroina, kokaina... Hau da, guztiz onartua dago alkohola gure artean eta neurri handi batean ere porroa, kokaina, eta txarra bezala bakarrik heroina.

T.T.- Zergatik dago holako permisibitatea?

M.E.- Nik ez dakit, baina beldurgarria da hortan erortzea, ez izatea konszienteagoak problemari buruz, eta ez dut erraten dramatizatu egin behar denik edo morbostasunarekin aztertu, baizik objetiboki, problemari ihes egin gabe, eta horrez gain zeharo desberdina baita 20 urteko gazteak edatea edo erretzea edota 12-14 urteko gazteak egitea. Lehenak pertsona ia helduak badira bigarrenak berriz arrisku handiagoa dute drogara jotzea urte hoietako "crisis de adolescencia"ri eta beste hainbat arazori ihes egiteko.



T.T.- Ze alternatiba planteatuko zenuke arazo honen aurrean?

M.E.- Orainarte nire ikerketan ikusi ditudan guztiak aztertu ondoren, gero eta guttiago sinesten dut alternatiba asistentzialetan, hau da, "centro comunitario" etan, moduloetan , e.a., eta arrazoi sinple bategatik, adibidez; pentsa ezazu nik 35 urte ditudala eta 12 urtetatik bizimodu bat egin dudala eta drogazailea naizela. Urte guzti hoietan drogaren munduan sartuta egon naizela, giro konkretu batean, janzteko modu batean, bizitzeko modu batean, delikuentzia, prostituzioa... eta zentru hauetan egiten dena zera da: pertsona hori hartu eta bertze mundu arrotz batean sartu, bertze giroan e.a. eta azken finean pertsona hori ez da laketzen giro horretan, bere mundutik atera eta gure gizartea eskeintzen zaiolako eta honek ez diolako ezer aportatzen.

Nire ustez alternatiba prebentzio aldetik etorri behar luke, haurtzarotik hasita aldaketa batzu eman behar dira, azken batean reboluzio kultural bat egin behar da. Familia, gure arteko komunikazioa ... gizarte konpetitibotik alde egiteko, sistema honetatik.

Gaur egun eskoletan erabiltzen dituzten programak gero eta gehiago ikastera bideratzen dute, baina, beuren nortasuna, izakera, problemak, interesak, ez dira inondik lantzen, beti konpetiziora bultzatzen dute, nota hobeagoak, selektibitatea ... medikuak, arkitektuak, abokatuak izatera iristeko. Baina alderantziz, esku lanak, kreatibitatea, baserrian lan egitea, musika, ... progresuaren pautetik kanpo gelditzen direnez baztertzen dizkigute. Bizitzeko bertze konzepzio bat eta bertze balorazio bat egin behar dugu, sistima honetan ez bait dago soluziorik.

T.T.-Gauzak horrela, nolabaiteko kontradikzioan eroriko ginen, euskararentzat, amnistiaren aldeko gestorentzat, Nikaraguarentzat etabar dirua lortzeko, ostatuetaz baliatzean ezta?

M.E.- Bai noski, eta ez dizut erraten honekin gaur bertatik aldatu behar litzakeela, erraxena ere hori baita, bainan bai sensibilitate gehiago izan honi buruz. Beharbada bertze irtenbideak bilatu behar genituzke oso garrantzizko den diru hori lortzeko. Ez dakit zentzuk izango liratekeen baina ziur nago izango direla, oso herri kreatiboa bait gara... eta beno, guttienez oraindik hor jarraitzen duten tabernak, kontutan har dezatela zeini saltzen dioten edaria.

Teleiko

EUSKADI TABERNA BAT DIRUDI, EUSKADI EDAN GABE EZIN BIZI,
EUSKADI HAU DA BIZIMODU LATZA .....

"JO TA KIE"

HERRIKO GAZTEAK NUN?



Ondo dakigu, gizarte kontsumistan murgildurik aurkitzen garela, eta gazteoi ere hortxe bizitzea dagokigula, ondorio diren lanik eza eta eskasia ekonomikoak inguraturik. Guzti horrek etsipen eta nazkara darama, handiagoetara joanik, gazterik ahulenak drogak eta delinkuentziak jotzen ez dituenean.

Giro honetan, sistemak eskeintzen digun asti-orduetarako aukerari alternatiba bilatzeko sortu dira, herri eta auzoetan, Gazteen Asanblada edo elkarteak, zein helburu jartzen duten Udalen eskutik gazte guztientzako izango diren topalekuak, eta asti-ordu alternatiboak, hitz batez, GAZTETXEAK.

Alderdi guztiek egiten zuten beren egitarauan gaztetxeen aipamena, baina alderdi horiek jokabide ezaguna daramate eta ez dute nahi gazteria kontrolpetik joan dakien.

Gazteen Asanbladak sortzean ikusi da (hau da Gaztetxeen aurreritzi eta helburuen araberako presio taldeak sortzean) gazteriaren arazoak aztertzeko alderdi horiek erakutsi duten gogo epela. Udalen aldetik eman den "burugogorkeriak", gazte askoren adorea deuseztu du, gazteok, ekimen eta ekintzak ezin aurrera eramanik aurkitu direnean. Badira gazteak, ordea, erreguka aritzeaz asperturik, exijitzeari, burrukatu eta benetako gazteen etxeak, gazte kulturarako egoitzak eskuratzeari ekin diotenak.

Nere ustez, Herri Batasunak, Udaletatik, modu sortzaile eta parte hartzailez jokatu behar du Gaztetxeetan, antolaketa nahiz zuzendaritza gazteek seinalatzen dutelarik. Urterako ekintzen egitaraua aurkeztu ondoren, Udalak lagundu "behar" ditu diruz GAZTETXEan diharduten lan batzorde eta gazte taldeen lanak. Udaletxeak onartu behar ditu, "baita ere", herriko gazteari erantzun liezaioken Gaztetxea eraikitzeko aurrekontu bereziak.

Beharrezkoak gaztetxeak?:

Gaztetxea udalaren tokia da, gazte guztiena, gazteak artekatzen duten lokalea. Gaztetxeak, galdu egin behar du zenbait herritan ezarri zaion erakunde

tankera, eta gazteek beren asti-ordueta-ko ekintzak planifikatu eta garatzeko leku bilakatu. Horrez gainera, herri bakoitzeko gazteentzako batzartoki eta topaleku izango da, ekintzetarako fokua batetik eta adiskidantza zein gazteriaren arteko harremanetarako bestetik.

Ikaskuntza eta sormenarako barruti, gazteriaren kulturarako formak adierazteko bide izan behar du. Hala irudimena nola asmamena, era berezi eta apartekoan garatzeko lekua, ekintzen planifikatzaile zein aurrera eramaile gaztea bera delarik. Elkarbizitzarako hezkuntzan trebatzeko oinarri, antolaketarako hezkuntzan aurreratzeko leku eta, azken finean, arazoak bakarka gabe kolektiboki konpontzen ikasteko egoitza. Baita gazteriaren problematika nahiz gazteek berre buruzko aukerak bilatzeko barruti behar du.

Gaztetxeetan, gazteen ahalmen, kezka eta beharren arabera jokatuko da. Azken aldian, hain zuzen, gazteria kontrolpean eduki besterik nahi izan ez duen jendeak egindako gazte politika da egin den apurra.

Gazteen gheto bilaka ez dadin, herri gizarte ekintza nahiz kulturalak gauzatu behar ditu, bai gazteek pentsatu edo egiten dutena aldarrikatzeko, bai inguruetan lanean, burrukan dabiltzan gainerako talde eta elkarteekin harremanetan jartzeko.

Lehen erran duten bezala, egoitza horen funtzioa, ekintzak garatzea litzateke, batetik, eta gazteak elkar aurkitzea, bestetik. Modu horretan, orain ekintza iraunkorrak, orain denboraldikoak (ibilaldi, asanbladak) antolatzea posible izango litzateke. Gaztetxekideek, beti ere, seriotasuna eta araudiaren betetze zintzoa behar-beharrezko lituzkete, gazteriaren egoitzarik ezak beharturik gaztetxera joanda, leku pasibo eta arazoetatik ihes egiteko bilaka ez dadin.

"Eman egurra gazte, lortu arte."

J. Etxebeltzea

JO TA KE gaZtetxeaK lortu arte!

AZKENEKO SASKIGILEAK?

Zumitza lantzen.

Gutti dira dagoeneko saskigintza ogibidetzat daukatenak.

Egia erran bi ezagutzen ditut nik lan honetatik bizi direnak. (Hauetatik bat jadanik jubilaturik). Bai, badira zenbait ere zerbait aritzen direnak edo bere bizia bertze lanetan eman ondoren jubilatu eta honetan aridirenak.

Hagitz estimatua dago, egia errateko, lan hau. Baina, estimatzetik horretara dedikatzera anitz doa. Denbora batean ezinbestekoak baziren lan honekin egiten ziren tresnak orain plastikoa edo poliesterra dira beren etsaiak. Jakina, merkeagoak dira eta honek adina irauten dute.

Gaurkoan hilzorian dagoen saskigintza aztertzen saiatuko gara. Ondoren zuek erran beharko zergatik den merkeago plastikozko pozal bat gaztainezko saski bat baino.

Horretarako Karmelo Mikelenarengana jo dugu. Zergatik jo dugun beregana? Ba, saskigilerik gazteena delako Igantzin (Beraz, izango den azkenekoa ziuraski) eta bere bizia lan horretatik ateratzen duelako soil-soilik. 44 urte ditu eta dagoeneko 30 lan honetan. Baina, berak emango digu hobekien honen berri.

Galdera: Zein adinetan hasi zinen saskiak egiten?

Erantzuna: Ia ia haurra nintzelarik zenbait gauza egiten hasia nintzen baina lanean 14 urte inguru nituelarik, nere anaiekin hasi nintzen, Eleuterio eta Batistarekin.

G: Aunitz kosta al zitzaizun saskiak behar bezala egitea?

E: Gutti gora behera lauren bat urte pasatu behar izan nituen jo ta ke lanean planta xamarrean egiteko saskiak. Dena den eta Antxordokik erraten duen bezala (Antxordoki Igantziko saskigile famatua da) egunero zerbait ikasten da.

G: Zer saski mota egiten zenituzten orduan?

E: Orduan ez ziren adornotako edo egurra eramateko saski bitxiak egiten. Gehien bat garraiatzeko saski haundiak edo astoentzako saskiak egiten ziren.

G: Zein gai erabiltzen dituzu?

E: Betidanik gai nagusia gaztaina izan da baina bertze gai batzu ere erabili izan dira: Urritza, eltzaurra, haritz amerikanoa etab... (azken hau hagitz gutti). Erran bezala gaztaina da nagusi.

G: Beraz, lehendabiziko mendira joan behar, ezta?

E: Bai, halaxe da. Denbora batean erraz aurkitzen ahal zen gaia. Orain, aldiz, gaztaina eskin batzutan bertzerik ez dago. Gaitza bat jotzen ari zaio azken urte hauetan eta hagitz murriztuta dago.

Gaia zazpi urte ingurukoa behar du izan eta lehendabiziko puja bertzerik ez da probetxagarri, hau da, gaiak ezin du adarbegirik izan, bertzela puskatu egiten baita zumitza ateratzekoan.

G: Eta gaia etxean dagoenean zer egiten duzu, lanean hasteko prest al dago?

E: Bai, gaiak bere hezetasuna (behar beharrezkoa da) hilabete terdi altxatzen du. Ondoren uretan sartu egin behar bertzela puskatuko bait litzateke. Hemen uretan sartzen da baina busti gabe hezetasun hori altxatzeko modua izanez gero hobea da, urak zumitza iluntzen baitu.

G: Zertarako berotzen duzue gaia?

E: Ezinezkoa da bertzela zumitza ateratzea. Guk labean berotzen dugu baina aditu izan dut zenbait lekutan uretan berotzen dutela. Hemengo saskigileak labe bat daukagu etxean lan hori betetzeko. Gaiak ordu edo ordu terdi pasatzen du barruan (loditasunaren arabera) eta prest egonen da zumitza ateratzeko.

Lan zaila da gainera aria behar bezala eraman beharko delako.

Zumitza atera ondoren oraindik hazia pasatu beharko diogu bere bi aldeak leun-leunak gelditzeko. Lan hau ere garrantzitsua da itxura handia ematen bait dio saskiari. Sumitza behar bezala gurutzatu eta prest egonen da saskia.

Oskar



Bortzerri,(?) Bortzerriak

Bortziri,(?) Bortziriak

Badirudi gure artean badagoela halako joera, herriak dioena guttiesteko, herriak erabiltzen dituen hitzak aldrebeskeriatzat hartzeko, herria arlotetako edukitzeko.

Errate baterako, erdaraz "LA REGATA" deitutako lurraldea izendatzeko, nik ttiki ttikitatik (sortzez hangoa bainaiz) beti MALERREKA entzun nuen nere guraso edo herritar adintuen ahotik. Baina orain dela hamarren bat urte hasi ziren sasijakintsu batzuk erranez, MALERREKA gaizki errana zegoela, herriak gaizki erraten zuela eta, lurralde hori maldatsua denez, berez MALDA ERREKA behar omen zuela, herriak batetik "D" letra jan zuelakoz eta bertzetik A+E.E bihurtu delakoz. Litekeena da, baina nik dakidanez ez dago frogarik hori baieztatzeko ezta ukatzeko ere.

Baina interpretatzen hasiz gero, bertze interpretapenak ere egin genitzake, errate baterako, MALA ERREKA izan daitekeela antzemanez. Azkuek eta P. Mujika-k beren hiztegietan diotenez MALA hitzak "tierra arrastrada por un torrente" edo "tierra de aluvión" erran nahi omen du. Hemen ere ez daukagu froga ziurrik baieztatzeko ezta ukatzeko ere, baina guttienez etimologi hori ere litekeena litzateke.

Zer erran nahi du honek? Herriak dioena aldatu eta era berriak sartzen hasteko, era berri horiek guttienez dokumentaturik egon behar luketela; bertzela gu ez gara inor interpretapenak eginez herriak dioena aldatzeko. Eta nik dakidanez, oraindik ez da inon aurkitu dokumentaturik toponimo hori ez modu batera ez bertzera. Koldo Mitxelena-ri galdetu nion behin batean

honen berri eta ez zuela inoiz ikusi dokumentaturik eratzun zidan eta arrazoi horregatik ez zuela sartu bere "Apellidos Vascos" liburuan.

Zoritxarrez, azken hamar urteotan, zabaldu da MALDA ERREKA izendapena, bereziki egunkari, aldizkari eta liburuak direla medio eta herria ere horrela erraten hasia delakoan nago, komunikabide horien eraginez eta berak gaizki erraten zuela pentsatuz. Eta ez erraten hasia bakarrik, beharbada nahiko sartua eta zabaldua dago gaur egun eta nere ustez alferrik litzateke orain berriro MALERREKA erraten eta idazten hastea.

Dirudienez gauza berdintsua gerta daiteke edota gertatzen ari zaigu orain BORTZERRIAK edo BORTZIRIAK toponimiarekin. Herriak orain arte BORTZERRIAK errankatu du eta ez BORTZERRI; edo deklinatuz BORTZERRIETAN , BORTZERRIETAKO ... eta ez BORTZERRIAN, BORTZERRIKO ...; alegia, herriak ez du singularrean erabiltzen, pluralean baizik.

Baina azken urtean batez ere, gero eta maizago ikusten ari gara BORTZIRI (edo BORTZERRIETA Txillardegi-k) eta hori nere ustez herriaren eta tradizioaren kontra joatea da. Kontuz! Ez nago -IRI -ERRIren ordez erabiltzearen kontra. Ez. Gure ia herri guzietan agertzen zaizkigun etxe izenek: IRIGOITI, IRIGOIEN, IRIBARREN, IRIARTE, IRISARRI... zalantzarik gabe zera adierazten digute, gaztelaniazko VILLA-ri lehen euskaraz IRI erraten zitzaiola gure herriotan ere, nahiz gaur egun ERRI erran.

Afera, bada, ez dago ea -ERRI ala -IRI erabili beharko litzatekeen, baizik ea BORTZIRI ala BORTZIRIAK erran behar den. Eta nere ustez dudarik ez dago BORTZIRIAK erabili behar dela eta ez BORTZIRI. Zergatik? Erran bezala, herriak gaur ere pluralean erabiltzen duelakoz eta gure aintzinakoek ere pluralean erabiltzen zutelakoz.

Izan ere, F. Idoate-k bere "Rincones de la Historia de Navarra" liburuan (ikus 3. tomoa 260-262 or.) erraten digunez,-1615.urtean Bera herriak Lesaka auzitara eraman omen zuen (beharbada auzi honen berri emanen dugu hurrengo batean). Auzitegiak azkenean Berari arrazoi emanez erabaki hau hartu zuen, hala nola, handik antzina ez zitzaiola "LESAKAICO BORZ IRIAC" deituko (lesakarrek nahi zuten bezala), baizik "BORZ IRIAC" soilik edo "BORZ IRI NAFARROACOAC". Hemen interesatzen zaiguna zera da: lehen ere ez zela BORTZIRI singularrean erabiltzen, BORTZIRIAK pluralean baizik.

Eta lehen horrela erraten bazuten eta gaur ere herriak pluralean erraten badu, penagarri litzateke bati edo batzuri aldaketa hori egitea gogoratu zaielakoz, tradizioaren eta herriaren kontra joatea. Uste dut errespetu gehixeago erakutsi behar geniokeela herriari. Agian oraindik tenorez gaude okerra zuzentzeko izendapen hori herrian gehiago sartu baino lehen, bertzela, urte guttien buruan MALERREKA-k eraman duen bide bera eramanen du eta orduan beranduegi izanen da zuzenketak egiten hasteko. Hortaz hemendik dei bat egin nahi nieke aldaketa hori egin duten pertsonei eta onartu duten erakundeei.

P.I.



Berrizaun.

'O' eta bere lagun 'H' bixkien ixtorioa

Bart, lagun sail bat ostatuan bildu ginen pote batzu hartzeko; halako batean baso bat ur eskatu nuen eta eskutan hartzerakoan ur-ttantta bat lurrera erori zen, pixkat geroxeago mutil bat sartu zen eta ur-ttantta zapaldu zuen bere zapata azpian gelditu z. Mutila deustaz konturatu gabe ordu pare bat egon zen gurekin eta norbere etxera abiatzera gindoazela mutilak oinak ezin mugitu zituela erran zigun. Denok txantxetan zebilela pentsatuz irri egin genuen baina bera hagitz serio ikustean kezkatzen hasi ginen. Denon artean bulkatzen genuen mugi zedin bainan kia! ezin mugitu! orduan ia zapata nola zegoen ikusteko makurtzea erabaki genuen eta aho bete hortzekin gelditu ginen ikusi genuenarekin!. hura bai zela ikustekoa! hiru gizontxo arraro zeuden han guri begira.



Mintzatzen hasi eta batak "O" deitzen zela eta besteak anai-bixkiak zirela eta "H" deitzen zirela adierazi ziguten. Haien jatorriaz galdetu ondoren ur-ttantta baten osagaiak zirela eta haserre bizian zeudela mutilak hankapean hartzeagatik erantzun ziguten.

Gu harriturik geunden ea ur-ttantta bereziren bat zen galdetu, galdetu genien baina haiek ezetz erranez eta hagitz umore txarrez honela ihardetsi ziguten:

-Edozein ur-ttanttak osagai berdinak izaten ditu eta lehenbailehen libre uzten ez bagaituzue munduan dauden gainerako ur-ttantta guztiak deituko ditugu.

Haien agindua bete genuen eta beraien

ixtoriaz zertxobait jakin nahian geundela ikusi zutenean korro bat egiteko agindu ziguten, haiek errandakoa egin ondoren "O" deituriko gizontxoa mintzatzen hasi zitzaigun:

-"Honeraino ailegatzeko sekulako bidaia egiteko lana izan dugu baina azken finean horixe da gure destino petrala: bidaiak egitea; dena den hori ez da okerrena zeren eta horrela laguntza haundia ematen diegu gure naturako biztanle lagunei; okerrena zera da, ondotik etortzen zaretela gizona deiturikoak eta dena izorratzen duzuela, bai gure adiskide landareak zapalduz, hautsiz, moztuz, bai errekatxo gardenak zikinkeriaz estaliz, bai inguruak kutsatuz etabar...

Baina gero, baldin eta egunen batean garbitzerakoan, ura edaterakoan edo bazkaria prestatzerakoan zuen etxeko txorrotatik urik ateratzen ez dela ikusten baduzue kriston zalapartak eta iskanbilak montatzen dituzue, eta ez zarete konturatzen zeuk bakarrik zaretela errudunak eta errudun bakarrak gainera zuen izaera eta jokabide aldrebesagatik; horrexegatik gaude ia ia beti umore txarrez zuen artean, baina tira! orain gure honeraino ailegatu arteko bidaia kontatzen segituko dugu: orain dela bi hilabete hodeietan geunden lasai lasai gure lagunekin baina Afrika aldeko lurraldeetan izugarrizko lehortea izan zen, beraz han barna zebiltzan ur-ttanttak guregana ino etorri ziren eta hodeietan pisu gehiegi zegoenez gutariko batzu lurrera erori ginen. Gu, Maldaerreka aldeko iturritxo batetara ailegatu ginen. Zuek ongi dakizuenez depositotik etxeetako edo kasu honetan ostatuko txorrotatara pasatzen gara eta txorrotatik edalontzira. Hemendik aintzina gertatutakoa oso ongi ezagutzen duzue beraz eskatzen dizuegun gauza bakarra aurrerantzean kontu haundiagoz ibil zaitezten munduan zehar da, ze bertzela denak porrot eginen bait du zuek deustaz konturatu gabe.

Denok ahozabalik geundelarik bidaia segitu behar zutela erran ziguten; segidan "O" bere lagun "H" bixkiekin elkartu zen berriro eta ur-ttantta osatu ondoren agur erranez desagert ziren.

ANA



IA EZINEZKO AMODIOA!!

Hain eginkizun arraroetan paradoxikoki ahalegintzen duen astiak egun batean mendebaldeko hiri batera eraman ninduen, hiri ez grisa ez pintoreskoa, hainbat direnetariko bat.

Nik sufritzen nuen, dirudi, ez behar psikologiko bat ohizko kezka inbidiatuen faltagatik, eta karrikan nenbilen zoruari begira jende aldetik ihes eginez. Gustatuko litzaidakeen erruki mota aurkitu ahal izan banu, amodio ederra baina ezinezkoa sufritzen duenari jendeak opari egiten diona nahiago nukeen.

Hona hemen, argi azalduta, udako pasio singularrera eraman ninduen izpirituaren egoera, nire modura azaltzera noanekoa:

Hiri hartako museora sarritan joaten nintzen eta pasatzen nituen orduak -ordu luze, osoak, benetako orduak- koadroen aurrean, haien kontenplazio miresleari interes kutsu bat ematen dionak.

Egun batean, txoko batean, Aldo Rienzi azken mendeetako pintatzaile italiarraren pintura bat aurkitu nuen. Andreren erretratua zen, baina andre singular batena, sekula ez ikusita, haren begirada bakar batek amoratzen zuena. Erran behar dut, nire hitza emanez, begiratzen dutenetarikoa zela erretratua; begirada sakona, kontenplatzailearen arima bilatzen zuena eta berehala aurkitzen zuen harrapatzeko.

Laburtzeko, jarraitu nauen irakurleak aurrikusitako errebelazioa eginen dut: pintatutako andreaz maitemindu nintzen. Irudiez maiteminduen zerrenda luze hartan sartu nintzen, denek errukituak eta hainbat sufritzen dutenak.

Hasieran zoriontsua nintzen. Instintuak erraten zidan nire pasioa erantzundakoa zela, eta enganiorik ez zegoen somaketa honetan, bere begiek, eskuzabalak, ezin zutelako gezurrik egin.



Haiek ziren egunak, jaunak, haiek ziren egun argiak museo hartan barnean! Gelara sartzean, aldi bakoitzean, gure begiradak aurkitzen ziren eta amodioa gehiago haunditzen zen. Eramaten nizkion markoan kokatzen nituen lore sortak gelako arduradunatik eskutatuz, eta mintzatzen nintzaion, gutxi gora behera, modu honetara: "Maitea, ene txikia, berehala beteko dugu gure irrikitasuna.

Zuzendaria ikustera joanen naiz eta gure kontua azalduko diot eta laster onartuko du. Numeroen bidez erakutsiko diot nire egoerak museoak eskeintzen dizkizun ardura berdinez etxean zu edukitzea permititzen didala, eta berak ikusiko du uste onez nabilela eta gure aliantzaren ezkonlaguna nahi izanen du".

Berak, ondradua, aditzen zidan eta nire afanaren oihartzuna egiten zuen. Milaka moduz, denak geldi eta isilak, bere eskerrotasuna erakusten zidan.

Baina badakizue nolakoak diren emakumeak. Inori kalterik ez egitearen itxuraz, batzutan jeisten zaituzte zakarki ametsik maiteenetatik.

Eta arratsalde batean, senide aberats batekin suertatze batengatik bisitaren ohizko ordua ateratzean, presaka museora heldu nintzen merkatuan aurkitu nuen krabelin sorta hoberenarekin.

Maiteminduaren haur jolasagatik maitea ezustean hartzea okurritu zitzaidan eta bere begien aurrean supituki aurkeztu ahal izateko, eguneroko bidea paretari alboratuta jarraitu nuen eta zorua leunki zapalduz zapatak traditzea galerazteko.

Traizio! Ez zen zaratarik izan traditu ninduena. Enganioa han zegoen, nire bideko azken bihurgunean. Urrutitik dagoeneko iruditu zitzaidan giro hartan ahots ezohizko eta ezezaguna aditzen nuela; eta, hurbiltzean, nire amoratuari kanpotar batek ospatzen ziola ikusi nuen. Eta ikusi ahal nuen atseginez aditzen ziola eta niretzat bakarrik izan behar zueneko begirada iruditu zitzaidan eskeintzen ziola.

Hura oinazea eta hura amorrua batera! Hura bulkaden nahasketa! Nahi nuen erre eta erahil, nire eskuetan kraskatutako etsaiaren hezurrak eduki, mendeku kosmikoa hartu. Baina geldirik nengoen pozoin haren azken tanta ahitzeko eta nabari agertzeko andre baten zurkaiztasuna, nire bihotzaren jabe izanik, lurretik arrodatu eraziz.

Haren hitzak garbi ailegatu zitzaizkidan: "....dena ongi aterako da. Ez dut nahi zuzendariarekin mintzatu, ez digulako konprenituko. Egun batean etorriko naiz arrats aldera, zapi beltz batekin estaltzeko, eta etxera eramanen zaitut, han itxoiten gaitu zoriontasunak..."

Eta berak, ni ongi konturatu nintzen, aditu eta sinesten zion.

- Aski! - erran zuen mozten, ilea harrotuta eta zurbil -. Buka dezagun konponketa bilau hau!

Erretratuko damak begiratu zidan txundituta, arrenkari. Baina nik banekien zer egin behar zen.

-Zurekin, emakumea, hitz gehiagorik ez -erran nion-. Jainkoari eskerrak balio duzuna garaiz aurkitu dudala.

Eta krabelin sorta aurpegira bota nion, irain egiteko. Besteak, iraina galerazi nahiean, besotik heldu ninduen. Nik begiratu nion.

-Eta zu, amodio lapurra, museo galaia, gizon gizajoa, irten zaitez karrikara aurpegia apurtu behar dizudala...

Eta nolako erran halako egin nuen, nire duintasunaren defentsan eta exenplu orokortzat hartzeko.

*

"Amor gairebé impossible" Pere Calders

*

*

Joakin Balentziak itzulia.

AÑA MAIALEN

Aña Maialenen eskuak mehe eta zimurrak ziren, baina hala ere bixkor mugitzen zituen edozein lanetan hasten zelarik. Begiak berriz, sudur konkor baten gaineko aldean beltzak eta ttiki ttikiak ziren. Ez zen gorputz haundikoa Aña Maialen, ez, bere arropa ilun eta haundietan jantzia zerbait iduri zuen, baina gaineko aldetik lepo mehe bat ageri zen eta azpiko aldetik gona haundiaren tartetik eta kalotzetan sartuak ikusten ziren bi makil beltz bezalako hankak.

Aña Maialen bakarrik bizi zen, gaztetan hil zitzaion senarra seme alabarik utzi gabe eta ordutik berak bakarrik aurrera jo zuen bizitzaren gaizkitasunari alde eginez. Bazuen bere baratze txikia baina ongi zaindua eta bazituen ere oiloak eta lapinak. Arras maite zuen mendian barna ibiltzea eta mendiko lore, belar eta xixa guztiak ezagutzen zituen.

Herriko jendeak maite zuen Aña Maialen gauza guztietarako prest izaten zelakoz: andre batek haurra izateko tenorean han izanen zen Aña Maialen bizi berri hura mundura etortzera laguntzeko; eliza garbitu behar zelarik Aña Maialen lehendabizikoa izaten zen; neguan Aña Maialen harat eta hunat ibiltzen zen etxe guztietako zerri hiltzeko mondongak egiten; matalazak arrotu behar zilerarik etxekoandreek Aña Maialen deitzen zuten laguntzeko...

Ni ere Aña Maialenen eskutan sortu nintzen. Eta ez prezisko horregatik, baina

andre xahar harek bazuen nere biotzean toki goxo bat egina. Haurra nintzelarik, noiznahi joaten nintzen bere etxera eta hantxe gustura egoten nintzen Aña Maialenen historioak aditzen; galdetzen nion ia zergatik ziren paretatik zintzilika ziren osto multzu haiek; laguntzen nion oilo bazkatzen... eta azkenean Aña Maialenek, gaztain edo galtxaur batzuk ematen

zizkidan eta etxera bidaltzen ninduen.

Aldi batzuetan, arto bihitzeko lana haundia zelarik, Aña Maialenek gure etxean pasatzen zuen gaua laguntzeko asmotan eta gau hauek dire nere haurtzaroko oroitzapen hoberenak: kanpoan sentitzen zen nola haizeak panpatzen zituen zuhaitzaren adarrak bat bestearen kontra; sentitzen zen ere haizearen oihu ilun eta trixtea, otsoaren negarrari irudia; eta gu hantxe, etxe barnean, sukaldeko supazterraren goxokiaren inguruan jarriak eta gure inguruan berriz iluntasuna jarria. Eta denen gainetik ixiltasuna, ixiltasuna bakarrik hautsia kanpoko haizearekin, edo harot bihitze "kra, kra..."-rekin. Orduan nik esaten nuen:

"Aña Maialen, hixtorio bat"

Eta Aña Maialenek altxatzen zuen aurpegia, begiratzen ninduen eta irritxo bat egin ondoren, berriz jausten zuen aurpegia eta arto buruari begira hasten zen solasean, man__txo:

"Bai, esaten zuten aldi batez bi neska mendira joan zirela..." eta orduan ni ahazten nintzen artoez eta Aña Maialeni begiratzen nion zozotua bezala, "... gaua gainera etorri zitzaioten eta bidea galdu zuten..." Orduko ia nik, begiak zabal zabalik, bakarrik bi neska mendian iluntasunean galduak ikusten nituen

"... eta agertu zitzaieten andre zahar ura, hasi zen laisterka malda goiti, malda behiti, eta bi haizpak haren ondotik ezin segituz..."

Aña Maialenen eskuak segitzen zuten "kra, kra" arto bihitzen baina bere ezpainak iduri zuten ez zirela mugitzen. Hala ere nik bere hitzak aire harrapatzen nituen

"... eta ondarrean andre hura suntsitu zen eta leku hartan musika bezala aditzen omen zen. Segitu zuten aintzinaxago eta

orduan ikusi zituzten hainbeste sorgin dantzan su handi baten inguruan..."

EZ, gure suaren inguruan ez zen sorginik, nere gibeleko iluntasunari begiratzen nion eta ezta ere, ez nuen andre zaharrik.

"... biharamunean itzarri ziren leze ondoko leku batean, eta ez zuten jakin egia ala amets bat izan ote zen."

Orduan ni hasten nitzen nere galderekin,

"Aña Maialen, zuk uste duzu hori egia izanen zela, ala ametsa?; Aizu, eta sorginak ez ziren ohartu han zirela bi neskak?; Gaur egun ez da sorginik izanen, ez da hala?"

Huntan aita sartuko zen:

"Bainan haurra, zaude ixilik, hobe zenuke lan gehiago egin eta solas guttiago."

Eta amak berriz esanen zion Aña Maialeni: "Ez ezaiozula gehiago hixtoriorik kontatu, aski txoriburu da berez."

Baina berdin izanen zen, Aña Maialenek segituko zuen bere hixtorioekin eta ni, lorietan , aditzen.

Goiz batez, norbaitek esan zuen Aña Maialen ez-ongi zela. Ilunabarreko hil ezkila, bere danda trixteekin, jotzen ari zen.

Hauek dira nere Aña Maialenen azkeneko oroipenak.

Zugarramurditik



Kepari

... amets... amets bidean... haseran... bukaeran...erdian... erdiaren bukaeran... aldiro... maiz... sarri...amets... ezezagun...ixil...edonolako...eguzkiak bere azken izpiez Fraingo malkarrak...aldatz muturreko otadien lore horiak...Aginako leizeetan amildu aurretik emeki laztantzen... balakatzen...musu arin hutsa...dituelarik... ibar izkutatu...here...sorginduak mendi zokoetatik orotarat begira hasten direlarik...hedatzen... zabaltzen...herrian mamu ilunak asfaltoan erraldoitzen doazelarik...xoriak bere habi xumean, bere erraietatik ateratako...sortutako... nekez ebatsiriko arima xuriak berotu nahirik..., kizkurtzen delarik...zeru... izar...ilargi...lehen...atzo...herenegun...Belheioris-ek errepideko edontzi beltzetan utziriko edanetan...aurpegi...tximak...garbi...ikus... orrazten dituztelarik...nire eskuetan,...urteetan zehar lorontzian amoroski hazitutako lore...zoli...eder...xarmanta daukadalarik...bere orritxoak...nire laztanak...nire irriak haren loratze harrigarriak...zure aurpegia gelaren orma begietan...iruzkatzen...gauzatzen...delarik...zure ezpain leunen altzotan babesten naizelarik...begiak hertsirik...haietan kurruskaturik...ene sakonetatik...sustrai...munetatik...doinu zaharraren ...urratsak...lehen notak... sorturik... izadiak iresten nauelarik... egaz...egaz...egaz...azkar...doa... Udaberrian izana... orain orbel... ondakin...zabor...sats...osto zimur hauskorra...lurrarekin bat egitera... gorpu...ilhotz...bilakaturik...etorririk...azken bidaiarako beztiturik ...guztia amaiturik...bukaturik...itsuturik....Xorroxin xokoan aparra deuseztatzen delarik...ixil...urrun...barnean...

Manu

TXISTEAK

- "Hirubelarri" !!, kasu eman, "Hirubelarri" dator, goazen denak ihesi !! - esaten du batek jendez betetako kale batetan. Eta denak korrika hasten dira.

- Eta gizon batek galdetzen dio korrika doan bati:

  - Nor da "Hirubelarri" hori? Zer gertatzen da hemen?
  - Zer gertatuko da ba, "Hirubelarrik" hiru belarri dauzkateneri moztu egiten dizkiola.
  - Baina inork ez dauzka hiru belarri ordea !!
  - Ez, baina moztuta gero kontatzen ditu. Ikusiko duzu ez bazara mugitzen....

.....

Ero bat beste lagun ero bat bisitatzera joan zen. Atea jo zuen eta barrenetik, hau esan zion lagunak:

- Ez dago inor

Eta orduan besteak:

- Eskerrak ez naizela etorri.

.....

Manueltxok galdera hau egin zion bere amari oso txikia zelarik:

- Ama, zuk non ezagutu ninduzun?

.....

- Aita, arrainek zergatik ez dute hitzik egiten?

- Hori ez dakizu ba? ahoa urez bete ezazu eta saia zaitez hitzegitera. Ikusiko duzu.



BURRUKARA JOAN, ZERGATIK?

Nere burua gaizki
bilatu eta
hasi nintzen kezkatzen
mundu honetan bizitzea
ez zitzaidala gustatzen
batzuek diru gehiegikin eta
besteak, berriz, eskatzen.
Isla batzueri buruz
bi nazio burrukatzen
kulparik gabeko jendea
pikutara bidaltzen
silla elektrikora ere
ordena ez bada kunplitzen
jende hoiek nola lasai dauden
oraindik ez dut ulertzen.

EHIZTARIA ETA USOA

Etxetik atera zen
bai ehiztaria
pardel txiki batean
hartuta eguneroko janaria.
Goizuetatik Aranatzera
egin zuen bere ibilaldia
zestua bizkarrean,
eskopeta berriz, besoetan jarria
basurdea ikustean
hura zen pasa zuen larria
atzetik uso bat pasa...
- Agur gizon nazkagarria,
ez al dakizu usoa
dela pakearen oroigarria?

KOLEJIOAN

Kolejioan baditugu
moteak denontzat jarriak
oilasko, koneju, hontza
arratoi eta txerriak
batzuek hortzak haundiak
besteak izugarrizko belarriak
denak juntatzen direnean
ematen dute oihanako animaliak
hemen ehiza ederra egingo lukete
Oronozko ehiztariak.

Mari Joxe Zugarramurdi.
Goizuetako Artantxu baserrikoa.



JOAN DEN EGUNEAN, NIK JAKIN GABE...
...NIRE ILOBEK TELEBISTARAKO HURRUNEZKO MANDOA EROSI ZUTEN...
BE!
...ETA POLTSIKOAN IZKUTATU ZUTEN.
-"BEGIRA AMATXI, TELEBISTAK OBEDITZEN GAITU" ERRAN ZIDATEN.
TXAS TXAS
ETA HASIERAN, NI FARREZ.
-"TELEBISTA, MINTZA ZAITEZ OZENKIAGO" AGINDU ZIOTEN...
...ETA TELEBISTAK ABOTSA IGO ZUEN!
ZAST!
-"TELEBISTA, ILUN ZAITEZ!"...
...ETA ILUNDU ZEN!
-"AMATXI, AGINDU IEZAIOZU ZERBAIT" NIRE ILOBEK ERRAN ZIDATEN.
TIK TIK TIK
ETA KASUEN LA PENA! NIK, ERGELA BAT BEZALA:
-TELEBISTA, HOA SUKALDERA!
AH AH!
AH AH AH!

amaiera

TORTURA

Lehioak ireki nituen
eta argitasunak olerki hau argitu zuen.
Pertsona baten izena argitu zuen,
kale ezagun batetako terrazan torturatua.
Eguzkiaren argiagatik
bere oin hautsiak mendekatuko nituela
zin egin nuen!!

EUSKADIKO

KARRASIA



ASKi
DA!



GARRASI D.L. NA 1324-85

175 pzta.